

93

4 euro • 2004ko ABENDUA euskal heziketarako aldizkaria

hh


hik hasi

ELKARRIZKETA: NEREA ALZOLA •  
ESPERIENTZIA: BAT, BI, HIRU...  
ITSASORA! • HIK HASI MINTEGIAK •  
ILUNETIK ARGIRA, ELBIRA ZIPITRIA •  
TREBIÑUKO ARGANTZON IKASTOLA



GAIA

Mendebaldeko Sahara  
itxaropenaren baitan



# GARMENDIA

ONDARRUKO PISTOLERO  
BATEN ISTORIOAK...

KIRMEN URIBE & MIKEL VALVERDE



Bazen behin  
alfabeto bat asmatu  
zuen gizon bat...

IRAKURTZEA...



ABENTURARIK

HANDIENA



Bazen behin elefante  
baten lagun egin  
zen mutiko bat...




Bazen behin gaueko  
arbelean ametsak margotzen  
zituen haur bat...



gaia

## MENDEBALDEKO SAHARA

Mendebaldeko Sahara bitan zatituta dagoen herria da. Aljeriako desertuan bizi dira horietako batzuk, Tindouf-eko errefuxiatu kanpalekutan. Hango errealitate gordi-  
nean hezkuntzan sinesten dutela erakutsi digute eta horretan inbertitzen dutela.



elkarrizketa

## NEREA ALZOLA

Haur literaturan aspaldi murgildu zen HUIFEZI Fakultateko irakasle hau. Ehunka liburu irakurria da, eta orain dela gutxi bukatu du literatura eta etika uztartu dituen tesia.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

## MENDEBALDEKO SAHARA

16 elkarrizketa

## NEREA ALZOLA

26 esperientzia

## Bat, bi eta hiru... itsasora!!

Itsas Gelak itsasoratzeko gonbita luzatzen digu

29 kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

## Web gune interesgarriak

Itziar Aramaio

33 berriak

34 Ilunetik argira, Elbira Zipitria liburua

39 Hik Hasi mintegiak

40 Muga guztien gainetik... euskaraz!

## Argantzon ikastola

Trebiñuko arabarren ikastola


Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408

Fax: 943/ 372 154; [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com); Posta Elektronikoa: [hikhasi@hikhasi.com](mailto:hikhasi@hikhasi.com); Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Airhoa Azpiroz Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ixiar Eizagintze Erredakzio batzordea: Mikel Estorika, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbatua, Felix Basurko Aines Dufau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Iontxo Oihartzabal, Juanjo Otaola eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Góiburu. Diseinua: TRAMGRAF!k Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Strarako eskolako ikasleak, Tindouf-eko kanpalekuan (Hik Hasi). Aldizkari honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egokitasun-aitormena du. Data: 2004-XI-19. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz baliu zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



# ILARGIAREN SEKRETUA

FILMA

DVD eta BIDEO hau  
zure ikastetxean salgai  
jarriz gero,  
**PREZIO BEREZIAK**

Ekolizpena: HIK HASI - Filmazioa: ITP PRODUCCIONES AUDIOVISUALES - Zuzendaria: ALICIA GARAIALDE

Argazki Zuzendariak: JOSE LUIS ROIG eta ENRIQUE URDANOZ - Gidoia: MAIALEN LUJANBIO - Musika: XABIER ZABALA

Aktoreak: PIRRITX eta PORROTX pailazoak

OIHANE AMUNDARAIN, OIHANE ARANBARRI, ANE CAÑADA, ISRAEL CALVO, ANE GOMEZ eta SIDI MOHAMED haurrak,

RAMON AGIRRE, NIKO LIZEAGA eta MERTXE RODRIGUEZ - JOSERBA FACHADO, NAGORE ORBELZU eta ANARTZ ZUAZUAren parte-hartzearekin

# editoriala

## abendua

### Hiru Sareta: elkarrekin bai, indarrak batuta hobe



Euskararen aurkako erasoek mugiarazten gaituzte. Mugitu baino gehiago, elkartu. Eta ongi dago. Mesede egiten digu.

Eta erasorik ez denean, ez al gara gai elkartzeko?

Iparraldetik etorri zaigu lezioa oraingoan. Sare publikoa, giristinoak eta ikastola batuta. Gustura ikusten den argazkia da. Are gehiago luzerako dirudiela antzeman ondoren. Biga Bai eskola elebidun publikoko guraso elkar-  
tea, Seaska ikastolen federazioa eta Euskal Haziak irakaskuntza elebidun giristinoko elkar-  
tea bildu dira, eta Hiru Sareta elkar-  
te osatu dute.

Bakoitzak bere esparrua du. Bakoitzak bere arazoak, helburuak, asmoak, aldarrikapenak, eraikinak, lan egiteko modua, filosofia eta irakaskuntza eredu. Eskola batera doazen ikasleak, irakasleak eta gurasoak ez dira aldamenekora joaten. Baina denek euskarazko irakaskuntza eskaintzen dute. Egia da denek ez dutela eredu bera; batzuek dena euskaraz egiten duten bitartean beste batzuek ikasgai batzuk ikasten edo irakasten dituzte euskaraz. Baina euskarazko ereduaren aldekoak dira denak.

Hortik sortu da bost aldarrikapen biltzen dituen testua: euskara hizkuntza ofizialtzat hartzea, hiru sareen bidez euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren eskaintza sistematikoa lortu ahal izatea, hiru irakaskuntza sareei dagozkien baliabide propioak ezagutzea, ikastetxeetan euskararen presentzia baliostea eta, komunikabide hizkuntza denez, ikastetxeetan euskararen erabilera bultzatzea.

Oro har, euskararen egoera kaxkarrak bultzatu dituzte elkartzerako. Edo hobeto esanda, Pariseko Hezkuntza Ministerioaren jarrerak. Bai, horrek mugiarazi eta elkartu ditu. Hiru Saretaren xedea nagusia frantses Hezkuntza Ministerioaren jarrerari aurre egiteko estrategia bateratua bideratzea da. Izan ere, orain arte bakoitza bere aldetik ibili ondoren, ez dutela ezer lortzen ahal konturatu dira. Ministerioak ederki "toretzen" dituela, alegia. Eta gainera, euren arteko zatiketa bilatzen duela.

Horregatik, batu beharra ikusi dute. Hemendik aitzina elkarrekin joko dute Hezkuntza Ministerioarengana.

Hegoaldean ere "Guk geure eskola. Euskal irakaskuntzan aurrera!" aldarrikapenaren inguruan jende eta erakunde andana bildu zen 2000ko abenduan. Kanpoko erasoaren aurrean, urteetan zehar egindako lana eta aurrera begira jarraitzeko irmotasuna aldarrikatu ziren, talde-konpromisoa azpimarratuz. Bi urte beranduago, 2002ko maiatzean, "Hezkuntza, geurea eta solidarioa" lelopean Kalitate Legeari bizkarra eman zitzaion, eta orduan ere euskal irakaskuntzako erakunde gehienek bat egin zuten. Gauza bera gertatu da aurten "Eskolak euskaldundu behar du" kanpainaren inguruan.

Orain arteko ekimenak txalotzearekin batera, galdera bat datorkigu: euskararen aurkako hatzaparra ikusita koan baino ez al dugu elkartu behar? Benetan euskal hezkuntza eredu propioa diseinatzeko eta antolatzeko ez al dugu elkartu behar? Ez al du merezi?

# kronika

EILAS sindikatuak salatu du Gasteizko alkateak ez duela betetzen urriaren 25an Gasteizko haur eskoletako hezitzaileekin adostutako akordioa. Hilabeteko grebari amaiera eman zion akordio hark.

Han hartu ziren hainbat erabaki ez dituela betetzen salatu du sindikatuak, besteak beste, lan baldintzei eta lanpostuei dagokiena. Sindikatuaren ustez, hezitzaileak prest agertu ziren euren lan jardunaldia ordu erdi gehiago luzatzeko; baina aurtengo ikasturtean ikasleen arretarako 182 ordu aurreikusten ziren, eta udalak kopuru hori handitu egin nahi du.

Bestalde, lan mahai bat osatzeko erabakia ere hartu zen akordioan, baina horrelakorik ez dela egin dio sindikatuak. Euren iritziz, PPK ez du horretarako batere asmorik ez borondaterik, eta ezta oposizioiko gainontzeko alderdiek ere.

Kaleratutako hezitzaileak hartzeko konpromisoa hartu zuen udalak, baina horretan ere da inongo urratsik eman.

Langileen egoerak ez ezik, familien eta haurren egoerak kezkatuta agertu da sindikatuak eta udalari jarrera aldatzeko eskatu dio.



## Hiru Saretak manifestazioarako deia egin du abenduaren 11rako

Hiru Sareta elkarteak manifestazioa egingen du abenduaren 11an Baionan Frantziako Hezkuntza Ministerioak euskararen kontra duen jarrera salatzen. Seaska, Biga Bai hezkuntza publikoko gurasoen elkarteak eta Euskal Haziak eskola giritino elebidunetako elkarteak osatzen dute Hiru Sareta, eta elkarrekin ekin diote euskararen aldeko aldarriari eta ekintzari.

Euskal Konfederazioak eta Batera plataformak manifestazioari atxikimendua adierazi diote. Ez hala Garpentzen Kontseiluak. Ez dio sostengurik eman, nahiz eta euskarazko irakaskuntzaren aldeko mozioa izenpetu orain dela gutxi.

Behin eta berriz frogatuta gelditu da

gurasoen gehiengoak euren seme-alabak euskaraz eskolatzea nahi dutela. 2001ean hautetsiek inkesta bat egin zuten Baiona-Angelu-Miarritze barrutian, eta gurasoen % 56k haurrak euskaraz eskolatzeko eskaria egin zuen. Gaur egun Zuberoan, Nafarroa Beherean eta Lapurdin eskolatuta dauden haurren % 25ak euskaraz ikasten du Ama Eskolan eta Lehen Mailan, nahiz eta horien artean eredu bat baino gehiago egon (dena euskaraz, elebiduna, euskara ikasgai modura...). Ondorengo urteetan, ordea, kopuruak nabarmen egiten du behera: kolegioan euskaraz ikasten dutenak % 9 dira eta lizeoan % 3.

Hiru Saretako kideek behin eta berriz azpimarratu dute Frantziako Gobernuaren jarrera, hitzak bai, baina ekintzak falta zaizkiolako. Hasteko, inkesta soziolinguistikoaren emaitzak zalantzan jartzen ditu. Euskararen transmisiorako bitartekoak murriztu egiten ditu ikastetxeetan. Gela elebidunak ez irekitzeko jarrera diskriminatzailea ezartzen du indarrean. Eta nazioarteko hitzarmenaren 30. artikulua ez du errespetatzen. Ondorioz, Iparraldean hogeitun urteren buruan euskara desagertu egingo dela diote Hiru Saretako kideek.

Manifestazioaren helburua Frantziako Gobernuak euskarazko irakaskuntzarekiko duen jarrera aldaraztea da.

Enpresaburuen xedea beste bat da: hezkuntzaz baliatuz ahalik eta irabazi gehien eskuratzea. Horregatik ari dira eskola pribatuak indartzeko ahaleginetan

Noam Chomsky



**Eskolatik pasa gabe lortuko dute titulua lanbidetako profesionalak**

Eusko Jaurlaritzaren 2004/07 Lanbide Heziketako II. Euskal Plana abian jartzearekin batera, hainbat berrikuntza izanen dira Lanbide Heziketaren alorrean.

Hasteko, titulurik ez duten langile kualifikatuek titulua lortzeko aukera izango dute hemendik aurrera. Eskaera bat egin ostean, banakako elkarrizketak egingo dira azterketa gisa. Behar den kasuetan, azterketa praktikoak ere egingo dira lanbide eskoletan edota norberaren lantokian. Prestakuntza eta eskamentu nahikoa duela erakusten duenak titulua jasoko du. Dagoeneko 400 lagunek egin dute eskaera.

Orain arte, titulua lortzeko bi bide zeuden: derrigorezko hezkuntza buka-

tu ostean araututako heziketa jasotzea; eta arautu gabeko heziketa jasotzea.

Beste berrikuntza bat unibertsitateko ikasleei dagokiena da. Han lizentziaturarik lortu gabe lanbide eskolera rajotzen duten ikasleek unibertsitatean gainditutako ikasgaiak baliozkotzeko aukera izango dute.

Lanbide Heziketako II. Euskal Planaren beste berrikuntza bat Erreterian irekiko den Lanbide Heziketako ikerkuntza zentroa da. European lehen aldia da horrelako zentro bat irekitzen dena. Zentro horrek harreman zuzena izango du enprekin eta lanbide eskolekin, eta baita Zientzia eta Teknologia zentroekin ere.

Planak beste hainbat helburu ere zehazten ditu. Besteak beste, heziketa arautua eta arautu gabea eskaintzen duten Heziketa Bereziko zentroen kopurua igo egin nahi da. Gaur egun 46 zentro daude eta beste bederatzi ireki nahi dira.

Horrez gain, pertsonen gestioari eta teknologia berrien garapenari ere garrantzi handia ematen zaio planean.

Guztia 115 neurri hartuko dituzte planarekin, gehienak ekaina baino lehen martxan jarriko izango direlarik. Aurrekontuari dagokionez, 116,6 milioi eurokoa izango da. Azken urteotan Lanbide Heziketan egin den inbertsioak bigarren postuan jarri du European, Alemaniaren atzetik.

**Hizkuntz Eskubideak Hezkuntzan** izeneko nazioarteko sinposioa egin zen azaroaren hasieran Donostian Hizkuntz Eskubideen Behatokiak antolatuta.

Euskal Herrian dauden hezkuntza sistemez hausnartu zen bertan, eta baita sistema horiek hizkuntz eskubideak bermatzen ote dituzten edo ez eztabaidatu ere. Oro har, hizkuntz eskubideak bermatuak izateko eta ikasle guztiak euskara jakinda irteteko, beste eredu baten beharra aipatu zen, egungo ereduaren sistema gaindituko duena, hain zuzen ere.

Horrekin batera, etorkinak integratzeko hainbat ekimen aurkeztu ziren. Gai horren inguruko mahai inguruan iritzi kontrajarriak agertu ziren jatorrizko hizkuntzaren trataerari buruz. Euskara hizkuntza gutxitua izanik eta dagoen egoeran egonda, ongi hausnartu beharreko gaia da hori gure eskolatan.

Nazioarteko zenbait adituk ere parte hartu zuen sinposioan. Nahiz eta hemengo errealitatearekin zerkusirik ez izan euren egoerak, zenbait ikerketa erabilgarri izan litezke Euskal Herrian ere, betiere hemengo egoerara egokituta. Eta zer esanik ez etorkinen kasuan. Desberdina baita herrialde bateko hizkuntza gutxitua denean eta ez denean.

Edonola ere, egungo egoeraren diagnosia egiteko eta aurrera begiratzeko bideak markatzeko baliagarri izan zen sinposioa.

# Mende baldeko Sahara

## itxaropenaren baitan







# Sahararren historia: sufrikarioa eta esperantza

Sarritan esan dhi digute sinesteko ikusi egin behar dela, eta horixe da herri sahararren gertatzen dena.

Bitan zatitutako herria da: batzuk Mendebaldeko Saharan bizi dira, Marokoren menpe. Eta handik alde egitea lortu zutenak Aljeriako basamortuan babestu ziren, Tindouf eskualdean. Ezer ez zegoen leku idor hartan erai-ki zituzten etxeak, eskolak, ospitalak... eta herri antolaketa osoa. Nazioarteko laguntza ezinbestekoa dute bizirauteko, eta modu askotara jasotzen dute laguntza hori.

Euskal Herrian ekimen asko egiten dira herri sahararren alde. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak akordio bat egin du SEAD Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoko Hezkuntza Ministerioarekin.

Orrialde hauek modu xume batean basamortuko bizimodura hurbilduko zaiztuztete, beti esku zabalik eta irribarrez hartuko gaituzten sahararregana. Kasu honetan, ikusi eta ikasi esateko partez, irakurri eta ikasi esango dugu.

Aljeriako Tindouf eskualdean bizi dira azken 30 urteotan 173.000 saharar. Euren eskuz eta izerdiz eraikitako pezozko etxeetan eta haimetan. Derrigor-tutako egoeratzari gogortasun eta pazientzia handiz aurre eginez. Euren ohiturei leku eginez. Umorerik eta bizi-tzeko gogorik galdu gabe. Irribarrea aurpegitik kendu gabe eta etxeke atea zabalduz. Lasaitasunik galdu gabe. Eta batez ere, esperantzarik galdu gabe. Mendebaldeko Saharara itzultzea desio dute haur txikienetik hasi eta saharazaharrene-raino. Konbentzitutak daude lortuko dutela. Eta lortzen dutenean banderari buelta emango diote: orain behean dagoen esperantzaren kolore berdea goian geldituko da eta goian dagoen beltza behean.

Herri sahararrak ez du inoiz amore eman kanpotarren presentziaren eta botere nahiaren aurrean, eta horixe erakusten du beste historiak. XIX. mendean iritsi ziren espainiarrak eta, orduan, Afrikan barneratzen ari zen Frantziarekin Mendebaldeko Sahararen mugak negoziatzen hasi zen Espainia. Sahararrek, ordea, gogor egin zieten



espainiarrei eta egoera ez zen batere egonkorra. Hori ikusirik, Frantziak lurralde horiek okupatuko zituela mehatxu egin zion Espainiari 1934an, eta ondorioz, bi herrialdeak sahararren aurka elkartu ziren. Hala, espainiar koloniak herri sahararren gaineko kontrola aragotu zuen.

1965ean NBE Nazio Batuen Erakundeak herri saharararen autodeterminazio eskubidea onartu zuen eta Es-





### Banatuako familiak

Bitartean, hormatzar lotsagarri hori dela-eta, sahararrak banatuta bizi dira: batzuk Mendebaldeko Saharan, beste batzuk kanpalekuetan eta beste hainbat diasporan. Nahiz eta lurraldearen zati bat askatu, ez dira joan hara bizitzera kanpalekuetatik. Herrialde osoa berreskuratzen dutenean joango dira.

Urte asko pasa dituzte elkar ikusi gabe alde bietakoek. Eta aurten, lehenengo aldiz, UNHCR Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Komisariatu Nagusiak bisita batzuk antolatu ditu sahararren artean. Kanpalekuetakoak lurralde okupatura joateko aukera izan dute, eta gero itzuli egin dira.

Ez da erraza sahararrak guztira zenbat diren jakitea, datu zehatzik ez baitago. Dena dela, denetara 300.000 inguru izango direla uste da. Mendebaldeko Saharan bizi diren sahararrak ez dira 100.000a iristen, eta hango marokorrek, berriz, 300.000 inguru dira. 120.000 soldadu marokoar daude, segurtasun poliziaren presentzia ikaragarria da eta administrazioa oso zorrotza da. Hilketak, desagertzeak... denetik salatu izan dute sahararrek, baina Marokoren jarrera ez da aldatzen. Egunero 2 milioi dolarretik gora gastatzen jarraitzen du.

Kanpamelekuetan bizi direnak 173.000 inguru zirela aditzera eman zuen UNHCR-ek 1991an. Orduan gehienak emakumezkoak eta haurrak ziren, baina su-etengaraiangizonezkoen kopurua ere igo egin da. Aljeriako Tindouf eskualdean dauden kanpalekuak lau wilaya edo probintziatan banatuta daude: El Aaiun, Smara, Auserd eta Dajla. Horieta bakoitzean 6-7 daira edo herri daude. Pezoz egindako etxe bakoitzaren ondoan haima bat dago eta hantxe egiten dute bizimodua. Ospitaleak, ikastetxeak, kultur etxeak, ministerioak, irratia, egunkaria, lantegiak eta abar ongi antolatuta dauzkate. Eta dena nazioarteko laguntzari esker.

de batean marokorrek daude zaintze lanetan, bestean sahararrak, eta Nazio Batuetako soldaduak ere bai.

### Erreferenduma eskatzen dute

Egoera konpontzeko hainbat saikera egin dira, baina Marokoren jarrera beti itxia izan da, atzean duen Frantziarena bezalaxe. Garbi dago beretzat nahi dituela eremu horretan dauden arrantzagunea, fosfata, gasa eta balizko petrolioak. Mohamed Haddadek, MINURSOko (Mendebaldeko Sahararako Nazio Batuen Misioa) bitarteko eta Fronte Polisarioeko kidea, garbi dio: *“Nazio Batuetako Biltzarrak esan zuen bezala, modu bakarra herri sahararren autodeterminazio eskubidea errespetatzea da. Espainiako gobernuak alde guztien eskubideak errespetatu behar direla dioenean, kezagarria da. Zeren Marokok ez du inolako eskubiderik lurralde honetan. Interesak eduki ditzake, baina ez du inolako eskubiderik herrialde sahararren gainean”*.

Horixe da sahararrek behin eta berriro eskatzen dutena: herri sahararren autodeterminazio eskubidea. *“Hori ukiezina da. Hainbeste sufrimendu, gabezia eta giza eskubideren bortxaketa jasan duen herri txiki honek duen asmo bakarra hori da. Hori da herri sahararren desafio demokratikoa”*.

Zentzu horretan, Espainiaren erantzukizuna handia dela uste dute sahararrek, eta 2004. urte bukaera arte Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluko kide denez, zerbait egin dezakeela uste dute.

### Autodeterminazio eskubidea, hori da hainbeste sufrimendu eta giza eskubideen gabezia jasan duen herri sahararren desafio demokratikoa.

painiari deskolonizazio prozesua has-teko agindu zion, munduko beste 60 herrialde ingurutan gertatzen ari zen bezala. Bitartean, Marokok eta Mauritaniak Mendebaldeko Sahararekiko interesa agertu zuten. 70eko hamarkadan Espainiak, kanpoko presioaren eraginez, autodeterminazio erreferenduma deitzea erabaki zuen, eta horretarako errolda egiten hasi zen. Marokoren eta beste potentzia kolonialaren presioek, ordea, prozesua oztopatu eta bidea geldiarazi zuten.

Egoera horretan sortu zen 1973an Fronte Popular de Liberación de Sagu el Hamra y Río de Oro, hau da, Fronte Polisario-a. Geroztik borroka politikoa, militarra, herritarra eta diplomatikoa bideratu ditu.

Erreferendumaren bidea mozturik, Marokok Martxa Berdea antolatu zuen eta 350.000 gizon-emakume marokoar abiatu ziren Mendebaldeko Saharara, han gelditzeko asmoz. Horiekin batera 25.000 soldadu marokoar joan ziren. Nahiz eta Espainiak herri sahararra defendatzeko asmoa azaldu eta erreferendumaren alde agertu (hala adierazi zuen Juan Carlos I. Erregeak 1975eko urriaren 7an El Aaiún-era egindako bisitan), astebete beranduago akordio bat sinatu zuen Marokorekin eta Mauritaniarekin. Mendebaldeko Sahara bi herrialde horien esku utzi zuen ordainsari ekonomikoen eta politikoen truke.

Goizetik gauera espainiarren eskuetan egotetik marokorren errepresiopean gelditu ziren sahararrak. Herritarren zati batek desertuan barrena alde egitea lortu zuen hegazkin eta tropa erasotzaileei aurre eginez. Fronte Polisarioak antolatu eta gidatu zuen ihesa. Horrela, Aljeriako Tindouf eskualderaino iritsi ziren, eta hantxe gelditu ziren.

Mauritaniak herri sahararrak bere lurraldean bizitzeko duen eskubidea onartu zuen eta alde egin zuen. Ez, ordea, Marokok. Ondorioz, 1975etik 1991ra luzatu zen Fronte Polisarioaren eta Marokoren arteko gerra. Sahararrek lurraldearen zati bat berreskuratu zuten, baina ez dena. Marokok 2.500 km-ko horma eraiki zuen, eta bere inguru guztia minaz josita dago gaur egun. Al-

## Sahara eta mundua haurren begietatik

Saharako basamortu lehorra-  
ren erdian, kolorez jantzitako  
hormak agertu ziren udaberrian.  
6 eta 13 urte bitarteko 2.000 hau-  
rren marrazkiak zeuden zintzili-  
katurik Smara herrian. Marrazki  
horiek, orain, Euskal Herriko hain-  
bat hiri eta herrian zintzilikatu-  
kodira.

Batetik, hainak, gameluak,  
desertua, bandera sahararra  
beraien mundua ikus daiteke; eta  
bestetik, mendi berdeak, ura,  
hondartza, etxeak. kanpoko  
mundua. Biak islatzen dira: be-  
raiek daukatena eta desio dute-  
na. Hori da haur horiek berruan  
dutena eta marrazkien bitartez  
era askean eta librean adierazi  
dutena.

2003. urteko urrian Eusko Jaurlari-  
tzako Hezkuntza Sailak margoak eta  
4.000 kartoï mehe zati bidali zituen  
Smarako kanpalekura. Haurrak bere-  
hala hasi ziren margotzen hezitzaileen  
eta Gazte Sahararrak taldeko kideen la-  
guntzarekin. Marrazki guztiak erakus-  
keta batean bildu zituzten, eta berau  
ikustera joan ziren Anjeles Iztueta Hez-  
kuntza sailburua eta Nestor Basterre-  
txea eskultorea ekainean. Marrazki ba-  
tzuk aukeratu, Euskal Herrira ekarri eta  
erakusketa bat antolatzeko asmoa zu-  
ten, baina ezinezkoa izan zen aukera-  
keta egitea, eta marrazki denak ekar-

tzea erabaki zuten. Nestor Basterretxe-  
ak adierazi zuenez, *“aukeratu gabe uz-  
tea iraina izan zitekeen, eta hemen  
inork ez du irainduta sentitu behar, al-  
derantziz baizik. Oso polita da Euskal  
Herrian sahararrek modu honetara  
adierazteko aukera izatea. Izan ere,  
herri bakoitzaren hizkuntza propioa-  
ren gainetik, bada hizkuntza uniber-  
tsal bat: artea”*. Eta hala izan da, pobre-  
zia eta bakartuta bizi diren herri hone-  
tako haurrek artearen bitartez adierazi  
dute pentsatzen dutena.

Kolorez, alaitasunez eta irudime-  
nez jositako lanak dira eta tonu horrek  
harritu du Basterretxea. *“Haur horiek  
zer marraztuko dute? galdetzen nion  
neure buruari. Zeren hemen ez baita-  
go ezer, hondarrez betetako lurra eta  
bizileku ziztrinak besterik ez. Nire ha-  
rridurarako, ikusi dudana jende zo-  
rionsuaren eta irudimentsuaren era-  
kusketa izan da. Beren nortasunare-  
kin, munduko beste haurrek bezala,  
sortu egin dute, eta dauden egoeran  
egonda, beste haurrek bezala sorkun-  
tza lan hori egiteak harritu eta poztu  
egin nau”*.

Hala bada, marrazki guztiak ekarri  
dituzte Euskal Herrira: 2.000. Hemengo  
hiri eta herrietan jarriko dira ikusgai eta  
salgai. Ateratzen den dirua, berriro Sa-  
harako kanpalekuetara bidaltzeko  
izango da. Oartzunen azaroan egin  
zen erakusketa 50 margolanekin. Hu-  
rrengoa Bilbon irekiko dute abendua-  
ren 13an BBK aretoan (Elkano kalean)  
eta hilaren 18a bitartean izango dira  
ikusgai eta salgai 100 marrazki.



# Hezkuntza Sailak bertara joanda lagunduko die saharrei heziketa arloan

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ekainean Saharako kanpalekuetara egindako bidaia lankidetzak akordio batez burutu zen. Saharrek esker hitzak baino ez zituzten izan, eta Anjeles Iztueta sailburua ere pozik agertu zen, *“bertara etorri, hemengo errealitatea eta beharrak ikusi eta gero egin dugulako akordioa. Horrelako konpromisoak eragingarriagoak dira”* gaineratu zuen. *“Elkarlan honen oinarria ez da arrainak ematea, arrantzarako kanaberak baizik”*.

Akordioak lau puntu edo konpromiso ditu:

1- Saharako kanpalekuetan pedagogia zentro bat egiten laguntzea. Zentro horretan herri saharararen hezkuntza politikaren curriculumak diseinatu eta landuko dira, bereziki Giza eta Gizarte Zientzietako curriculumak; hots, bertako geografiarekin, historiarekin

eta identitatearekin lotutakoak.


Gainera, zentro pedagogiko horretan testu liburuak eta ikasmaterialak prestatu eta diseinatu dira.

Hori guztia bideratzeko, Euskal Herriko hezkuntza profesionalak eta adituak joango dira eta handik bertatik lagunduko diete.

2- Euskal Herriko irakasleak joango dira Saharara hango hezitzaile, irakasle eta profesionalak prestatzera, batez ere pedagogian eta ikasteko metodoen arloan.

3- Euskal unibertsitate sistemarekin elkarlana. Irakasle tituludunak eta ikasleak praktikak egitera joango dira Saharara.

4- Nestor Basterretxeak herri sahararari oparitu dion eskultura Gaztari lanbide eskolan egingo da. Eskultoreak han bertan egin zuen eskulturaren maketa, lehenengo egunean goize-



Anjeles Iztueta eta Bachir Mustafá Sayed Hezkuntza ordezkariek akordioaren puntuak azaltzen.

an goiz jaiki, bandera aurrean kokatu eta beroaren zama sentituz. “Askatasun bidean” izena jarri zion, eta herri horren bi alderdiak islatuko ditu: egoera mingarria eta sufrimena batetik, eta askatasuna bestetik.

## Basamortuko eskolen arnasa sentituz



Desertuaren erdian, baliabiderik gabe eta nazioarteko laguntzari esker bizi diren saharrek, hasieratik garbi eduki dute aurrera ateratzeko hezkuntzak eta prestakuntzak duten garrantzia. Lehentasunezko gaia izan da, eta horregatik, gaur egun, haur guztiak, % 100, eskolatuta daude derrigorrezko hezkuntzaren etapan, hots, 6-12 urte bitartean. Helduen artean ere, % 99 alfabetatuta dago.

0-3 urteko haurrak haurtzaindegietara eramateko aukera dute, eta 3-6 urte bitartekoak eskolaurrera. Aukera hori eskaintzen duten 27 zentro daude kanpalekuetan barreiatuz, dayra bakoitzean bat. Dena dela, ez da derrigorrez-

# Mendebaldeko Sahara

## itxaropenaren baitan

ko etapa, baina 6 urtetik aurrerako bai. 6-12 urte bitartean Lehen Hezkuntza egiten dute. 29 eskola eta bi barnetegi (*9 de junio* eta *12 de octubre*) daude eta guztira 32.000 haur dabilta.

Sahararren eguneroko hizkuntza hassaniera izan arren, hizkuntza ofiziala arabiera da eta irakaskuntza ere hizkuntza horretan egiten da. Bigarren hizkuntza ofiziala gaztelania da, eta orain arte Lehen Hezkuntzako 3. mailatik hasten baziren ere, ikasturte honetan 2. mailatik hasi dira.

Lehen Hezkuntzaren bukaeran azterketa bat egiten dute, eta gainditzen dutenek Bigarren Hezkuntzan jarraitzeko aukera dute, baina kanpoan. Orain arte *9 de junio* eta *12 de octubre* barnetegietan 12-16 urteko gazteak egoten baziren ere, haur kopuru handia dela eta, Lehen Hezkuntza eskaintzera pasatu dira, eta beraz, memento honetan 12 urteko gazteek kanpora joan behar dute ikasten jarraitu nahi baldin badute. Normalean Aljeriara, Libiara edo Kubara joaten dira, hango gobernuak eskaintzen dituzten laguntzak direla medio. Bigarren Hezkuntza bi ziklotan banatuta dago, eta 1. zikloa (7., 8. eta 9. maila) bukatu ostean beste azterketa bat egiten dute ikasten ari diren herrialdean. Gainditzen dutenek 2. zikloarekin jarraitzen dute, eta gero unibertsitate ikasketak egiten, eta besteak kanpalekuetara itzultzen dira.

Urtero 8.000 gazte inguru itzultzen dira udan kanpalekuetara; batzuk unibertsitateko ikasketak bukatuta, eta beste batzuk Bigarren Hezkuntza gainditu gabe. Azken horiek eta 12 urterekin bertan kanpora joan gabe geldituta koak Lanbide Heziketara bideratzen dituzte, baina denentzako lekurik ez dagoenez, arazo handia sortzen du.

Hiru lanbide eskola baino ez daude. Gazuanikoa da bat; mutilentzat eta 75 ikaslerentzako lekua duena. Beste biak, *27 de febrero* eta Suediak finantzatutako *Oloff Palme*, emakumeentzako soilik dira. Lehenengoak 120 ikaslerentzako lekua du, eta bigarrenak 100entzat. Zentro horietara joateko aukerarik gabe gelditzen diren 700 gazte Aljeriara joaten dira lanbide bat ikas-

tera, eta Libiara 170.

Unibertsitate ikasketak egitera kanpora joaten dira, gehienak Kubara, Aljeriara eta Libiara, baina baita Estatu espainiarrera, Italiara eta Europako beste zenbait herrialdeetara ere. Batez ere Medikuntza, Ingeniaritza, Informatika eta Irakaskuntza ikasketak egiten dituzte. Gaur egun, ia familia guztietan dago lizentziaturen bat, eta hori azken 30 urteotan egindako lanaren eta ahaleginaren ondorio izan da. Zeren 100 urtez bertan egon ondoren Espainia Mendebaldeko Saharatik irten zenean, ez zegoen unibertsitate ikasketak zituen saharar bat bera ere. 30 urteotan, gauzak asko aldatu dira.

**Hasieratik garbi eduki dute aurrera ateratzeko hezkuntzak eta prestakuntzak duten garrantzia. Lehentasunezko gaia izan da, eta gaur egun, haur guztiak, % 100, eskolatuta daude 6-12 urte bitartean.**

*Eskoletako egoerak*

### Smara wilayako eskola

Orain dela 3 urte sortu zen eskola hau Asturiasko diru laguntzarekin. Iraitlean atek ireki eta ekainaren hasieran ixten ditu, udako 55-60º-ko tenperaturari bizkarra emanez. 20 gelatan banatzen dira goizez (8:00-12:00) joaten diren 850 haurrak eta arratsaldeko txandatan (16:00-18:00) sartzen diren 760ak. 48 irakasleren ardurapean egoten dira, adinaren arabera banatutako taldeetan, 40-45 ikasle talde bakoitzean. Gela batean saharar abestiak ozen kantatzen dituzten bitartean, beste batean arabiar alfabetoz idazten ari dira eta hurrengorik, a, e, i, o, u irakasten ari zaie gaztelaniako irakaslea.

Arabiera, gaztelania, matematika, erlijioa, heziketa fisikoa, marrazketa, historia eta geografia dira ikasgaietako batzuk. Ez dago hemengo eskoletako argitasunik, libururik edo ordenagailurik, baina haurrak pozik, irribarretsu eta



hiztun ikusten dira, solaserako gogoz. Brakom-ek, adibidez, aurten bukatuko ditu ikasketak, eta datorren ikasturtean Aljerian ikasten jarraitzeko gogoz dago. Irakasle izan nahi du, eta bere lagun Namymak, berriz, erizain.



Smarako eskolako Buzeid Badad eta Califa Zain irakasleak.

Buzeid Badadek, 30 urteko irakasleak, lau urte daramatza irakasle lanean. Kuban ikasi zuen Pedagogia eta Psikologia eta Gaztelaniako eskolak ematen ditu. Califa Zain ere Kuban ikasia da, Geografian espezializatua, eta bera ere Gaztelania irakaslea da egun.

### Zenbat irakasle zaudete Saharako kanpalekuetan jardunean?

Eskolaurrean eta Lehen Hezkuntzan guztira 2.500 irakasle gabiltza.

### Zein da irakasleen egoera hemen?

Goizeko 7:00etatik arratsaldeko 19:00etara lan egiten dugu eskolan, goizeko eta arratsaldeko txandetako ikasleekin, eta lan gogorra da. Ez dugu soldatarik kobratzen, militantiagatik egiten dugu lan. 80ko hamarkadan ondo ikusita eta baloratuta zegoen irakasleen lana, baina azken urteotan ez.

### Zein da Gaztelaniako irakasleen eguneroko lana?

Lau gelatik pasatzen gara, bakoitzean egunean ordubeteko eskola emanaz. Gaztelaniako ikasgaia ez beste guztiak arabieraz jasotzen dituzte ikasleek, eta hori beste irakasle batek egiten du. Beraz, gela bakoitzetik bi irakasle pasatzen dira: gaztelaniakoa eta gainerako ikasgaiak arabieraz ematen dituen.

Gaztelania komunikazio hizkuntza

moduan sartzeko saiakerak egiten ari gara, baina oraindik ez da aldaketarik egin. Hezkuntza Ministerioari proposamena egin genion, eta orain denon artean plan bat egitea falta da.

### Gurasoek parte hartzen al dute eskolan?

Bai, hilean behin egiten dira bilerak eurekin haurren jarraipena egiteko. Eta hortaz aparte, jaialdietan esku hartzen dute.

### Zein da daukazuen gabeziarik larriena?

Material falta; gainerakoa bigarren mailakoa da. Hasieran hondarretan eta botoiak erabiliz hasi ginen; orain orriak eta kartoi mehe zatiak lortuz gero, horiekin moldatzen gara.

Edonola ere, baliabide didaktikoak eta materiala falta arren, ahalegin handia egiten dugu modu didaktikoan irakasteko.

### Kanpoan ikasi ondoren, zuen presetakuntza eguneratzeko aukerarik ba al duzue orain?

Ez, eta hori da faltan botatzen dugun elementu garrantzitsuetako bat. Ez daukagu batere harremanik haiekin eta, zentzu horretan, Internet oso baliabide garrantzitsua da guretzat. Horren bidez, kanpoko munduarekin harremanetan jar gaitezke eta materiala lor dezakegu.



Gazuani lanbide eskolako polimerozko iglua eta eguzki plakak.

### Gazuani lanbide eskola

1996an eraiki zen lanbide eskola hau eta 1997an sartu ziren lehen ikasleak. 100 ikaslerentzako lekua duen eskola honetan bost espezialitate ikas daitezke: informatika, eguzki energia berriztagarria, txapa eta soldadura, zurgintza eta autoen mekanika. Iazko ikasturtean 75 ikasle zeuden: 15 neska eta 60 mutil. Neskek informatika baino ez dute ikasten eta goizean etorri eta arratsaldean etxera itzultzen dira. Mutirik, berriz, barnetegian gelditzen dira eta asteburuetan joaten dira etxera.

Adinari dagokionez, denetarik dago, ez dago mugarik. Ikasketa mailaren arabera onartzen dituzte ikasleak. Adibidez, informatika ikasteko 3. BBB gaitututa eduki behar dute; mekanika eta energia berriztagarriak ikasi nahi dituztenek 1. BBB edo Bigarren Hezkuntzako 9. maila; eta zurgintzakoek eta soldadurakoek ere 9. maila.



Sidah Emdat, Gazuani lanbide eskolako zuzendaria.



# Mendebaldeko Sahara

## itxaropenaren baitan

Sarrerako azterketa egin ondoren, hiru hilabeteko aurre-espezialitatea egiten dute. Ondoren, espezialitate batera edo bestera bideratzen dituzte. Behin horietako bat aukeratuta, lehen hiruhilekoan teoria eta praktika uzartzen dituzte, eta azken hiruhilekoan ia dena praktikoa izaten da. Inguruko lan-tegietan egin ohi dituzte praktikak.

Irakasle guztiak Kuban graduatuta-ko ingeniariak eta tituludunak dira. Espezialitate bakoitzean bi irakasle daude, 20 guztira.

### Elgoibarko lanbide eskolareki-ko elkarlana

Sidah-Emdat, lanbide eskolako zuzendaria, 1995ean Elgoibarko lanbide eskolan ibili zen ikasten, eta oso esperientzia aberasgarria izan zela dio, *“bai pertsonalki eta bai profesionalki”*. Kudeaketaren inguruko gauzak ikasi zituen, *“eta asko balio izan dit. Horren inguruko esperientzia falta zitzaigun, eta oso ondo etorri zitzaigun”*.

Bi zentroen arteko lankidetzeta ez da hor amaitzen. Elgoibarko irakasleak basamortuaren erdiko eskola xume honetara etortzen dira bertako irakasle- en jakintza birziklatzeko eta formazioa eguneratzeko. *“Hori oso garrantzitsua da”* azpimarratu du Sidah-Emdatek. *“Eskola ireki eta hornitzearekin soilik ezin dugu aurrera egin. Etengabeko laguntza behar dugu funtzionatzen jarrai dezan, bai ezagutzaren arloan eta bai materialen aldetik ere”*.

### 27 de febrero: emakumeen erreferentzia gunea

Saharako kanpalekuetan erreferentzia garrantzitsua izan da orain dela 25 urte inguru sortu zen 27 de febrero eskola. Gizonezkoak Fronte Polisario-an borrokan ari ziren bitartean, emakumeek 6-7 seme-alabako familiaren eta gizarte antolaketaren erantzukizuna hartu zuten beren gain. Nahikoa lan bazuten horrekin, baina hala ere, ez zituzten albo batera utzi alfabetatzea eta prestakuntza; horrek lehen mailan jarraitzen zuen. Horrela, 27 de febrero eskola sortu zuten, eta emakumeak beren haima eta familia osoarekin lekualda-

tzen ziren bertara urtebeterako. Eskolak haurtzaindegia eta jangela zituen, eta ikasi bitartean, han utz zitzaizketen haurrak.

Hasieran alfabetatzera soilik joaten baziren ere, gerora gauza gehiago ikasteko aukera zabaldu zen: idazkaritza, erizaintza, irakaskuntza, eskulanak, josteko makinak erabiltzeko trebakuntza, tapizak egiteko...

### Zentro kulturalak

Saharako Emakumeen Elkarte Nazionalak (UNMS) bideratuta, Rabunin bizitasun handiko zentro kultural bat dago. Emakumeentzako ikastaroak eta lantegiak daude aukeran. Iaz 30 aritu ziren ingelesa ikasten, 50 gaztelania ikasten eta 25 informatikan trebatzen.

Zentroko korridorean aurrera joan ahala, ate bakoitzaren atzean jarduera ugari egiten ari diren emakumeak ikus daitezke: ile-apaindegian orrazten, beirazko edalontziak pazientzia handiz margotzen, oihalak ehuntzen, antzerkirako arropa prestatzen, abestiak eta dantzak ikasten... Ia bi urteko jardunarekin oso gustura daude parte hartzen dutenak, eta UNMSk Aiunen beste bat irekitzeko asmoa du.



# Bachir Mustafá Sayed: *“Herri txikia gara eta ingurune honetan bizirauteko modu bakarra kulturalki ahalik eta prestatuena egotea da”*

Trinbarrerik galtzen ez duen horietakoa da SEADeko Hezkuntza ministroa. Beren egoera kontuan hartuta, harro egoteko moduko antolaketa dute hezkuntza aldetik. Are gehiago, eredu garria da dituzten mugak edukita, hobetzeko eta aurrera egiteko duten kenera eta gogoia. Sekretua? Hezkuntzan sinesten dutela.

**Besteak beste, zentro pedagogikoa eta curriculum egiteko laguntza hitzartu dituzue Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin egin duzuen akordioan. Horrelako hitzarmen bat egiten duzuen lehen aldia al da?**

Bai. Beste herrialde batzuekin unibertsitate mailako akordioak egin izan ditugu, baina gehiago ez. Lehendabizikoa da hau, bai.

**Zergatik Eusko Jaurlaritzarekin?**

Antzekotasunak ditugulako eta Euskal Herriak hasieratik laguntza zabal eman digulako. Dazkagun proiektu handienak Euskal Herritik datozkigu.

**Zein da Saharako kanpalekuetako hezkuntza sistemaren ardatza?**

Gure identitatea finkatzea eta indartzea. Hori da helburu nagusia. Gure identitatea zaindu eta munduaren beharretara egokitu eta eguneratu behar dugu. Dazkagun tresnak hori lortzera bideratu behar ditugu. Beraz, gure nortasuna zaindu, modernizatu eta oinarri zientifiko bat sortu behar dugu, hori baita gurea bezalako herri txiki batek bizirauteko eta bere burua babesteko duen bermea.

**Zein da Hezkuntza Ministerioak gobernuan betetzen duen lekua beste ministerioekin alderatuta?**

Gerra garaian Defentsa Ministerioak hartzen du lehen lekua; memento honetan, Hezkuntza eta Osasun Minis-

terioek. Bi arlo sozial horiek dira lehen-tasuna dutenak.

**Hezkuntza sistema sahararrak zerikusik edo loturarik ba al du sistema aljeriarrarekin?**

Lege aldetik ez du inolako loturarik. Guk gure legeak, araudiak eta antolaketa egiten ditugu. Lehen Hezkuntza bukatutakoan ziurtagiria ematen diegu, eta irakasle tituluak eta Lanbide Heziketakoak ere bai. Kanpoan ikasten dutenek, berriz, hango tituluak jasotzen dute.

Gure testu libururik ez dugunez, aljeriarrak erabiltzen ditugu, baina ez lege aldetik behartuta gaudelako, gurek ez dugulako baizik.

**Osasunarekin batera, hasieratik eman diozue lehentasuna hezkuntzari. Zer dela-eta?**

Gu herri txikia gara eta ingurune honetan bizirauteko modu bakarra kulturalki ahalik eta prestatuena egotea da. Horregatik, Fronte Polisarioarentzat hasieratik izan zen lehentasunezko ar-

**Gure nortasuna zaindu, modernizatu eta oinarri zientifiko bat sortu behar dugu, hori baita gurea bezalako herri txiki batek bizirauteko eta bere burua babesteko duen bermea.**



loa hezkuntzarena. Kanpalekuetan egin ziren lehen kanpaina herrikoiak haurtzaindegiak, eskolak eta ospitaleak eraikitzeke egin ziren. “Irakurtzen dakien sahararra, irakasten duen sahararra” deia egin zen, eta zekitenak ez zekitenei irakasten hasi ziren. Ia 25 urte daramatzagu alfabetatze kanpainekin, eta % 99 alfabetatzera iritsi gara. Udan kanpotik iristen diren ikasle guztiak helduak alfabetatzeko kanpainetan parte hartzen dute.

Horretaz aparte, ingurune franko-fonoan bizi gara: hegoaldean Mauritania, iparraldean Maroko eta ekialdean Aljeria. Horregatik, jan ez gaitzaten, bereizten gaituzten lotura historikoak mantendu behar ditugu, gaztelania, besteak beste.

**Zein egoeratan zaudete gaur egun?**

Memento honetan gure hezkuntza sistema moztuta dago. Bigarren Hezkuntza eskaintzen bagenuen ere, une honetan ez daukagu eta gazteek kanpora joan behar izaten dute ikasketak jarraitzera. Ikasturte honetan egoera hori zuzentzeko asmoa dugu.

Gauza bera gertatzen da unibertsitatearekin. Hemen ez daukagu eta kan-



pora joan behar izaten dugu.

Aljeriako lurralde honetan errefuxiatuta gaude eta kanpoko laguntzaren menpe gaude erabat.

Dena dela, anormaltasun horren barruan, nola normaliza gaitezkeen aztertzen ari gara, sistema moztu gabe eduki dezagun. Daukagunarekin hobeto antolatu behar dugu, hobeto egin. Agian ez dugu lortuko Bigarren Hezkuntza osorik edo unibertsitatea edukitzea, baina bai orain baino gehiago.

**Zein dira dituzuen arazo nagusiak?**

Bata eskola porrota. Gaur egun 13-16 urteko 14.000 gazte Bigarren Hezkuntzako 9. maila gainditu gabe gelditzen dira. Kopuru izugarria da. Gazte horiek Lanbide Heziketara bideratzen dira, baina hala ere ez dago denentzako adina leku.

Bigarren arazoa irakasleen exodoa da. Irakasleek 30 urte daramatzate borondatezko lana egiten eta nekatuta daude. Egunero 8 orduko lana da eta gogorra da. Duela 6 urtetik hona, beste lanbideetara pasatzen hasi dira: Media Lunara, beste ministerioetara, baratze-etara...

Egoera horren aurrean, irakasleak falta direnez, behartuta gaude Batxilergoko 2. eta 3. mailako ikasle graduatu gabeak hartzera. Horrek ondorio negatiboak ditu hezkuntzaren kalitatean eta haurren emaitza akademikoetan.

**Premia nagusiak gure curriculum eta testu liburuak diseinatzea, irakasleen formazioa eta aholkularitza, eta eskolen erakuntzan dira.**



Ondorioz, jendeak eskola koraniko tradizioaletara bidaltzen ditu haurrak. Kanpalekuetan bertan dauden eskola ez aratuak dira, eta eskola normaleko jardunaren osagarri dira. Egunean 2-3 ordu joaten dira eta irakurtzen, idazten eta erlijioa irakasten diete modu tradizionalen. Bertako irakasleak beduino zahar tradizionalak dira.

**Zein dira premia edo behar nagusiak?**

Hasteko, testu liburu sahararrak. Gaur egun hezkuntza programa aljeriarrak irakasten ari gara, geure testu liburuak ez daukagulako. Horregatik, lehen-tasuneko lana da gure testuak diseinatzeko eta egiteko bitartekoak bilatzea.

Horri loturik, irakasleen formazioa eta aholkularitza behar dugu curriculum eta testu liburuak diseinatzeko eta egiteko. Horretarako, interesgarria da truke kulturalak egitea. Hau da, Gaztelania irakastera etortzea kanpotik eta haien ezagutza transmititzea.

Hirugarrenik, zentroen eraikuntza aipatuko nuke. Haur Hezkuntzako eskola guztiek 26 urte baino gehiago dituzte. Pezoz eginda daude eta etengabeko higadura jasaten dute. Urteroko mantenua eta berritzea falta zaie. Gai-

nera, gutxieneko arau pedagogikoak ez dituzte betetzen: argiztapena, aireztapena, mahaiak eta aulkiak oso zaharrak dira...

**Nolakoa da Hezkuntza Ministerioaren antolaketa?**

Ministerioaren barruan zuzendaritza zentralak daude: Eskolaurrekoa eta Lehen Hezkuntzako, Lanbide Heziketako, atzerriko ikasleen kolektiboarena, ikuskaritza eta curriculum, lankidetzakoa eta logistika eta eskoletako hornikuntzako.

Ministerioan dauden pertsonak dira zuzendaritza horien arduradun, eta harreman zuzena dute eskualdeko zuzendaritzekin.

Wilaya bakoitzean eskualdeko zuzendaritza bat dago eta dayretako eskoletako zuzendaritzako kideek parte hartzen dute bertan. Gure hezkuntza sistemako hizkuntzak arabiera eta gaztelania dira, eta bietako irakasleek esku hartzen dute zuzendaritzetan.

Eskola bakoitzean irakasleez osatutako batzorde bat dago eta astero bilitzen dira. Hilean behin egiten diren batzordeetan guraso elkarteek ere parte hartzen dute.

**Mendebaldeko Sahara**  
itxaropenaren baitan



# nerea alzola

HUHEZIKO irakaslea eta  
haur literaturan aditua



Irakurtzeko zaletasuna  
bultzatzeko guk geronek ezagutu  
behar ditugu liburuak, guk geronek  
maitatu behar ditugu



Oinarrizko  
giza eskubideak  
agertzen al dira  
haurrentzako  
liburuetan?  
Oinarrizko giza  
eskubideetatik  
haratago dauden  
balioak agertzen al  
dira? Planteatzen al  
da nolabaiteko  
kritika  
sozialik?

Orain dela urte dezente lituratu zuen literaturaren munduak. Geroztik, ehunka liburu irakurriak izango ditugu. Eta ez irakurri soilik, baita bera bezalakoekin komentatu, aztertu eta proposamenak egin ere.

Narrazioak, ipuinak, poesia... denetik du gustuko Nerea Alzolak. Bereziki haur literaturako liburuak eduki ditu esku artean. Haurra izango balitz bezala irakurtzeko gaitasuna du; eta aldi berean, begi kritikodun heldua izan liteke.

Barruko kezkek bultzaturik, ekarpen bat egin nahi izan dio hain garrantzitsutzat jotzen duen literaturari, eta hortik etorri da bere tesia: Haur literaturako liburu-albumetako proposamen etikoak. Balioak aztertzeko eredu baten diseinua eta ezarpena.

HUHEZI Fakultatean eskolak ematen ditu; 20 urte tik gora daramatza bertan. Ikasturte bete-betean gaudelarik eta fakultateko eguneroko mugimenduan murgildurik, gelara sartzerako garaia iritsi aurretik bere tesiaz mintzatzeko eskatu diogu, eta lasai-lasai, eskutik heldu eta haur literaturaren munduan murgilarazi gaitu.

### Noiz murgildu zinen haur literaturaren uretan?

1989az geroztik nabil haur literaturaren inguruan. Irakurtzeko zaletasuna zela eta, beste lankide bat eta biok inguruko ikastetxeetan eta liburutegietan zegoen egoera aztertzeko hasi ginen. Eta egoera penagarria zen.

### Zergatik penagarria?

Ez zegoen haur literaturarik, ez zegoen haur liburutegirik... ez zegoen ezer.

Orduan, zerbait egin behar genuela erabaki genuen. Katalan batzuekin harremanetan jarri ginen eta Rosa Sensatekoek zuten mintegi bat ezagutu genuen. Liburuak irakurtzen zituzten, aholkuak eman, idatziak egin... Eta gu ere horretan hasi ginen. Pello Añorgarekin lan asko egin dut urte hauetan: ipuinak irakurri, gidak egin, ekintzak egin haur liburutegietan... Orain, ordea, horretan dabiltzan enpresak daudenez, utzi egin diogu. Hortaz, gure oinarrizko ekintzarekin jarraitzen dugu.

### Zein da, bada, zuen betiko oinarrizko ekintza?

Beti pentsatu izan dugu, eta orain guztiz baieztatuta daukagun intuizioa da, irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko guk geronek ezagutu behar ditugula liburuak, guk geronek maitatu behar di-





tugula liburuak. Bestela, ezin da ezer egin.

#### **Literatura eta etika uztartu dituzue tesian. Nora iristeko?**

Hiru galderei erantzuna bilatzeko egin dut hori. Lehenengoa; oinarritzko giza eskubideak agertzen al dira haurrentzako liburuetan? Bigarrena; oinarritzko giza eskubideetatik haratago doazen balioak agertzen al dira? Eta hirugarrena; planteatzen al da nolabaiteko salaketa sozialik injustizien eta abarren aurrean? Hau da, liburuak kritikoak al dira? Bestelako mundu batera bideratzen al dute?

#### **Zer da zuretzat etika? Zein ikuspegitik begiratzen diozu?**

Etika bizitzen jakitea da, baina ez nire buruarekin, ingurukoekin baizik.

Ikuspegi anitz egon litezke, eta bat bera ere ez da objektiboa. Nik egungo hainbat pentsalari etiko aztertu ditut. Nire ustez oso ekarpen interesgarria egin dutenak edo egiten ari direnak hartu ditut eta egungo gizakiarentzat bizitza duin bat eramateko zein balio proposatzen dituzten ikusi dut. Konpromiso sozio-politiko indartsua duten pentsalariak hautatu ditut, besteekiko arretari, ardurari eta elkarbizitzari garrantzia ematen diotenak. Korrante psikologista alde batera utzi ditut, indibidualistak iruditzen zaizkidalako. Oina-

ritzat hartu ditudan pentsalarien artean daude Kohlberg, Frankfurteko eskolakoak, Apple, Adela Cortina, arduraren etika, kontsumoko etika, etika komunitarista...

#### **Zer balio defendatzen dituzte autore horiek?**

Maitasuna, pietatea, zuzentasuna, justizia, barkamena, errespetua, ardurara, eskuzabaltasuna eta tolerantzia.

#### **Zer-nolako liburuak aztertu dituzu?**

50 narrazio album aztertu ditut. Aluma ilustrazioak pisu handia duen liburuari esaten zaio. Euskarazkoak nahiz gaztelaniazkoak ikusi ditut. Iriz-



Laburtuz,  
aztertutako  
liburuak dira  
literarioak dira, ez  
didaktikoak,  
errealitatearen  
ikuspegi konplexua  
dutenak, eta erdia  
baino gehiago  
mundu gizatiarrago  
baten aldeko  
konprimisoa  
dutenak.  
Pertsonaiaren bat  
eredu edo kontra-  
eredua duten  
liburuak aintzat  
hartuta, % 54k  
planteatzen du  
serioski orientazio  
edo salaketa  
etikoren bat

Liburuak  
aztertze-ko erabili-  
dudan tresna edo  
erraminta egokia da  
irakasleentzat,  
liburuzaintzat  
edota gurasoentzat  
haur literaturako  
liburuak  
aukeratzeko eta  
interpretatzeko  
balio duelako

pide batzuk jarraituz egin dut aukeraketa, eta etika eta literatura biak batera aztertu ditut; hau da, ez ditut bi alderdiak banatu eta bereizi.

### Albumak aztertze-ko tresna bat asmatu duzu. Nolakoa?

Labur esanda, tresna horrek hainbat elementu aztertze-ko aukera ematen du: liburuaren azalpena, pertsonaia nagusiaren funtzioak, narrazioaren hasiera, korapiloa eta bukaera, pertsonaiek jasaten duten aldaketa, gaia, testuaren zatiak, egoera kritikoak, irakurlea norekin edo zerekin identifikatzen den, nolakoa den identifikazio hori, zer balio eta kontrabalio agertzen diren... Datu horiekin denekin emaitzak ateratzen dira, eta hortik interpretazioa egin liteke.

### Tresna hori baliagarria al da edonorentzat?

Bai, noski. 50 album aztertu ondoren eta beste epaile batzuek berraztertu eta gero, esan liteke tresna baliagarria dela albumen corpus literarioa aztertze-ko eta horiek irakurrita zein balio edo bertutek eragiten duten ezagutze-ko. Era berean, liburuaren erraiak ateratzeko eta duten aniztasunaz jabetze-ko laguntza ematen du tresna honek. Izan ere, liburuaren edukiari, eraketari eta estiloari behin eta berriz begiratzea dakar. Erraminta egokia da irakasleentzat, liburuzaintzat edota gurasoentzat

haur literaturako liburuak aukeratzeko eta interpretatzeko.

### Hasierako galderei erantzunik topatu al diezu?

Lehenengo galdera zen ea liburuetan oinarrizko giza eskubideak agertzen diren. Aztertutako albumenetatik 39tan, hau da, %78an agertzen dira. Aztertutako liburuaren corpusean eragin garrantzitsua dute oinarrizko giza eskubideak.

Bigarren galderari dagokionez, liburuaren %46an oinarrizko giza eskubideak gaintzen dituzten proposamen etikoak daude. Beraz, aztertutako ia liburuaren erdian egungo zenbait pentsalari etikok "bizitza ona" edo "bizitza osoa" bezala izendatzen dituzten proposamenak agertzen dira. Hori ikusita, zera baieztatu daiteke: gaur egun haur literaturan kalitate literario handiko hainbat liburu bizitza alternatiboaren aldeko apustua egiten dutela, eta giza-kiaren garapenerako oinarrizkoak diren balioen aldekoa ere bai; esate baterako, maitasuna, barkamena, pietatea eta abar.

Hirugarren galdera kritikotasunaren ingurukoa zen, ea liburuak nolabait salaketa sozialik egiten duten. Hasteko, salaketa modu zuzenean edo zeharka egin litekeela aipatu behar da. Aztertutako liburuetan zeharka egiten da. Adibidez, bertute bezala planteatuta; pertsonaia errukiorrak bizitzeko





modu horren borondatea agertzen du eta bihozgabekeria edo krudelkeria salatzen ditu zeharka. Beste modu bat da irakurlearengan antipatia sorraraztea bidegabekeria egoera baten aurrean; esate baterako, pertsonaia berekoi, bidegabe edo intolerante batek antipatia sorrarazten badu, inork imitatu nahi ez duen kontra-eredu bihurtzen da. Beraz, pertsonaiaren bat eredu edo kontra-eredu duten liburuak aintzat hartuta, aztertutakoen artean % 54k planteatzen du seriooki orientazio edo salaketa etikoren bat.

Laburtuz, aztertutako liburuak obra literarioak dira, ez didaktikoak, errealitatearen ikuspegi konplexua dutenak, eta erdia baino gehiago mundu gizatiarrago baten aldeko konprimisioa dutenak.

**Hori ikusita, literaturak etika edo balioak geureganatzen lagun dezakeela uste al duzu?**

Bai, ipuinaren eta narrazioaren birtutez transmisio garrantzitsua egiten da. Nik ez dut esango etika hau edo balio hauek edo beste batzuk landu behar diren, hori subjektiboa da. Baina liburuak azpian zein balio dituzten jakiteko tresnak badauzkagu, eta hori jakinik, norbera gai da seme-alabentzat, ikasleentzat, proiektuarentzat, lanarentzat edo dena delakoarentzat liburu egokia aukeratzeko.

**Esan al liteke liburu batzuk onak edo egokiak direla etika edo balioak lantzeko eta beste batzuk ez?**

Kontuz ibili behar dugu. Batzuetan iruditzen zaigu liburu didaktikak edo moralkeria dutenak direla balioak lantzeko egokiak, eta ez da beti hala izaten. Nire ez zaizkit gustatzen liburu didaktikoak: ekologia lantzekoak, etika lantzekoak... Praktikoak dira irakasleentzat, baina liburu bezala, literatura aldetik, ez dira batera aberatsak. Horregatik, bi alderdiak hartu behar dira aintzat: literarioa eta etika. Niretzat literatura aldetik oso baliotsuak direnak izan litezke etika aldetik ere onak. Alderdi literario kaxkarrekoak ez dira egokiak nire ustez.

Izugarrizko beldurra ematen dit "liburu hau ona da etika lantzeko" entzuteak. Hobe da literatura aldetik altxorra diren liburu onak irakurtzea, nahiz eta moralkeriarik ez eduki. Beste modu batera esanda, bizitzaren ikuspuntu aberatsa duten liburuak, pertsonaia eta egoera aberatsak dituztenak dira egokiak. Sarritan, literaturak guk hitzekin esaten duguna baino askoz gehiago esaten du.

Haurtxikiekin, Haur eta Lehen Hezkuntzan, ezin ditugu banatu hezkuntza eta hezkuntza artistikoa. Liburu onak aukeratzeko baditugu, posible da hezkuntza estetiko edo literarioa eta etika uztartzea.



Izugarrizko beldurra ematen dit liburu hau ona da etika lantzeko entzuteak. Niri ez zaizkit gustatzen liburu didaktikoak: ekologia lantzekoak, etika lantzekoak... Praktikoak dira irakasleentzat, baina liburu bezala, literatura aldetik, ez dira batera aberatsak. Horregatik, bi alderdiak hartu behar dira aintzat: literarioa eta etika. Hobe da literatura aldetik altxorra diren liburu onak irakurtzea, nahiz eta moralkeriarik ez eduki

Gaurko  
behar nagusietako  
bat entzuten  
jakitea dela  
pentsatzen dut.  
Entzuten jakiteko  
isiltasuna,  
pazientzia, ezer  
egin gabe egoten  
jakitea... behar  
dugu. Eta  
horretarako balio  
du literaturak



### Zer garrantzi du literaturak gure bizitzan?

Narrazioak izugarrizko garrantzia izan du gure hezkuntzan, betidanik kontatu izan dira istorioak. Judutarren kontzentrazio esparru batean egon zen idazle batek hala zioen: eguneko ogi puska, jateko zuten guztia, ematen zutela ipuin bat entzuteagatik. Izan ere, bizitzeko edertasuna behar dugu, sinboloak. Hori gabe ezin gara bizi. Zergatik aurkitzen ditugu halako kutxa ederrak gure baserrietan? Ez da gauza funtzional bat. Gizakiak bizitzeko behar dituen oinarrizko beharrak asetu ondoren, edertasuna lantzen du, mitoak sortzen ditu.

Itxuraz arteak, poesiak... ez dute hainbesteko garrantzirik gure bizitzan, badirudi ez direla funtsezkoak. "Poesia zertarako?" galdetzen baldin badigute,



"ezertarako ez" erantzungo dugu. Baina gizarteak pentsamendu sinbolikoa du, eta guk uste duguna baino garrantzi eta eragin handiagoa du. Horregatik, alderdi sinboliko hori landu egin behar dugu artearen bidez, poesiaren bidez, kontenplazioaren bidez... Literaturak kontenplazien ikasteko balio du. Eta esan nahi du entzuten jakitea, ikusten jakitea, egoten jakitea... Gaurko behar nagusietako bat entzuten jakitea dela pentsatzen dut. Entzuten jakiteko isiltasuna, pazientzia, ezer egin gabe egoten jakitea... behar dugu. Eta horretarako balio du literaturak.

Horrez gain, beste helburu funtzionalagoak edukiko ditu, baina lehen aipatu ditugun arloak ahaztuta dauzkagu gure hezkuntzan, eta hori errekuiperatu behar dugu.

Izan ere, gizakiok narrazioa behar dugu. Norberaren garapenerako nor-



beraren eta besteen narrazioa entzuteko premia dugu. Horren adibide dira gure tradizioan pisu handia izan duten narrazioak. Gaur egun berrikuntzari garrantzi handia ematen zaio. Baina ez du beti hala izan behar. Zeren, berrikuntza berrikungatik egiten bada? Gure narrazioa lantzen ez badugu, beste batzuk etorriko dira beste gauza batzuk inposatuz: Coca-cola... Gure gauzak uzten eta beste batzuk hartzen gabilta. Horregatik, narrazioak entzutea eta irakurtzea garrantzitsua da.

**Hemengo narrazioak behar badiugu, hemengo idazleak eta liburuak beharko ditugu. Egungo uzta nolakoa dela uste duzu?**

Hemengo oso gauza gutxi argitaratzen dira. 2-8 urte bitarteko haurrentzako liburuen zerrenda bat egiten jardun gara, 2003an argitaratutako liburuen artetik. Eta... kosta egin zaigu liburu oso gomendagarrien zerrenda egitea. 8 uretik gorako haurrentzat zerbaite gehiago dago, baina oro har, hemengo idazleen euskarazko argitalpen kopurua jaisten ari da.

**Haur, gazte eta helduen literatura. Zein desberdintasun dago hiruren artean? Zein berezitasun ditu bakoitzak?**

Ez dutela desberdintasunik esango nuke. Zaila da bataren eta bestearen artean dago muga zehazten. Ni beti adi-



nen aurkakoa izan naiz. Adinak ez daukala garrantzirik uste dut. Hala ere, liburuetan eta baita guk egiten ditugun gidetan ere, adina jartzen da, hau da, zein adinekoentzat den egokia liburu bakoitzak. Zergatik egiten da hori? Irakasleek asko eskatzen dutelako, alegia, pista batzuk ematea nahi dutelako.

Nik tesian ez dut adin tarterik aipatu ere egin, ez zitzaidan interesatzen. Irakasleak edo gurasoek liburuak irakurri eta ezagutzen baldin badituzte, eurak erabakiko dute haurrentzat egokiak diren edo ez. Adinarena oso subjektiboa da.

Nik mintegi batean parte hartzen dut. Bertan elkartzen garenok liburuak irakurtzen ditugu eta gero gure artean komentatzen ditugu. Sarritan oso zaila egiten zaigu liburu bat gazteentzako edo helduentzako den definitzea. Hain da subjektiboa eta pertsona bakoitzaren arabekoa!



Narrazioak izugarriko garrantzia izan du gure hezkuntzan, betidanik kontatu izan dira istorioak.

Judutarren kontzentrazio esparru batean egon zen idazle batek hala zioen: eguneko ogi puska, jateko zuten guztia, ematen zutela ipuin bat entzuteagatik. Izan ere, bizitzeko edertasuna behar dugu, sinboloak



## Bat, bi eta hiru... itsasora!!

### Itsas Gelak itsasoratzeko gonbita luzatzen digu

Ikusi eta ikasi. Horixe izaten da hoberena eta horregatik ematen du aukera hori Itsas Gela irabazi asmorik gabeko elkar-teak. Pasaia Donibaneko portuan dituzten bi itsasontzietara bisitak egiteko aukera luzatzen du, eta bertako lantegietan itsasoari buruzko hamaika gauza ikasteko parada dago. Helburua itsasoa eta horri lotutako kontuak ezagutaraztea da, eta zer-gatik ez, itsasoaz maitemintzea!

Itsasaldeko herrietako jendea itsasoari lotuta bizi ohi da, halako harreman berezi bat sortzen da itsasoaren eta herritarren artean. Horixe sentitzen zuen Pasaia Donibaneko koadrila batek, eta sentimendu hori besteei transmititzea bururatu zitzaion. Adolfo Suberbiola sustatzaileetako batek hala dio: *“Nire alabekin Vienan nengoela musika kontzertu batera jende pila bat zihoala ikusi genuen, eta harritu egin ninduen hainbeste jende ikusteak: zaharrak, gazteak... denetik. Alaba zaharrenak zera esan zidan: “Aita, zuek ez daukazue musikaren kulturarik. Musika entzuten duzue, baina ez dizuete erakutsi estimatzen”. Eta egia zela pentsatu nuen”*. Geroztik, itsasoarekin gauza bera gertatzen zela ohartu

zen Suberbiola. *“Ez nuen nahi gazteei niri musikarekin gertatu zaidana gertatzerik. Horregatik, itsasoa ezagutzeko aukera eman nahigenien”*. Eta hala, Itsas Gela sortu zuten orain dela hiruzpalau urte.

Irabazi asmorik gabeko elkarte honen helburua itsasoarekin zerikusia duten hainbat arlo garatzea eta hedatzea da. Itsas inguruneak eskaintzen duen aukera zabala erakutsi eta hurbildu nahi dute. Horretarako, bi itsasontzi dituzte: Mater Kantauriko atun-ontzia eta Urdaneta goleta, eta biak ikus daitezke.

Itsas Gelak ordubete irauten duten bisitaldi didaktikoak dauzka prestatuta. Urdaneta goletan ontziaren manibrak erakusten dituzte, eta baita segurtasun neurriak ere. Belak altxatzeko au-

kera ematen zaie gazteei eta itsasoko korapilo erabilgarrienak egiten ere erakusten zaie. Ontziari izena ematen dion Andres Urdaneta euskal nabigatzaileen abenturak ere kontatzen dituzte.

Mater Kantauriko atun-ontzia Geterian porturatzen zen orain dela gutxi arte. Orduan arrantzaleak ibiltzen ziren bertan, eta horregatik, lan egiteko prest dagoenez, hainbat gauza ikus daitezke bertan: euskal arrantzaleen bizimodua, arrantza lekuak, arrantza tresnak eta abar. Bisitaldian euskaldunon itsasoko historiari eta horren bilakaerari buruzko informazioa ematen dute, eta baita gaur egungo egoerari eta arazoei buruzkoa ere.

Hori guztia ikustearekin batera, itsasora irten eta bidaiatxo bat egiteko aukera dago.



## Lantegiak itsasontzian bertan

Itsas Gelaren asmoa itsas mundura hurbiltzea denez, itsasontzi barruan hainbat lantegi edo tailer dituzte antolatuta. Gauzak ikusi, ukitu, eraldatu, erabili... egiten dituzte, bertatik bertara biziz dena. Lantegi bakoitzean unitate didaktiko bat lantzen da. Hezkuntzako programan edo curriculumean agertzen diren gaiak lotutako edukiak izaten dira, ondoren edo aurretik eskolan gai sakontzeko aukera emanaz. Lantegiak ez daude adinka banatuta, hau da, edozein adinetako haurrek parte har dezake lantegi guztietan. Baina denek ez dute unitate didaktikorik izango, horiek adin zehatz batzuetarako prestatu baitituzte. Bi orduko iraupena dute lantegietako egonaldiek eta hauek dira aukeran daudenak:



### Lehen Hezkuntzako 1. ziklorako:

- Itsasora hurbilduz

### Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. ziklorako:

- Itsas bioaniztasun lantegia: Itsasoko bizitza aztertzen!
- Itsas bioaniztasun lantegia: Arrainen mundua
- Arrantza lantegia: Arrantzan ikasten!
- Itsasertza lantegia: Gure itsasertza ezagutzen!
- Historia lantegia: Boga-boga, marinela
- Historia lantegia: Gizakiak eta itsasoa

### DBH, Batxilergoa eta jendaurrekoa:

- Itsas bioaniztasun lantegia: Kantauriko itsas ekosistemak
- Itsas bioaniztasun lantegia: Zintzilikako bizia
- Arrantza lantegia: Ohiko arrantza eta bere bilakaera
- Itsasertza lantegia: Itsas baliabideak eta horien kudeaketa
- Historia lantegia: Euskal itsas historia eta protagonistak
- Historia lantegia: Pasaiaiko itsas historia
- Ozeanografi eta klima lantegia: Ozeanografiari sarrera
- Kutsaduraren lantegia: Gure itsasoaren ingurunearen osasuna

Hori guztia itsasontzian bertan lantzea esperientzia berria da askorentzat. Hala dio Izaskun Suberbiola arduradunak: *“Lehorretik etortzen direnentzat dena berria da, ez baitaude itsasontziak ikusten ohituta. Eta hurbil bizi direnek ere askotan ikusten dituzte itsasontziak, baina inoiz ez dira barrura sartu. Erakargarritasun berezia sortzen diete”.*

### Norberaren neurria

Itsas Gela elkarteak hainbat gauza prestatuta eta bideratuta baldin baditu ere, eskaeraren arabera moldatzen dira. Talde bakoitzaren beharretara egokitzen dituzte euren jarduerak. Horrela, bisita gidatuak goizez nahiz arratsaldez egin daitezke. Nahi adina lantegi aukera daitezke, behar denean denbora luzatuz.

### Lehorretik ere bai

Itsasontzian egiten diren jardueren osagarri da Itsas Gelaren informazio eta itsas gaitegiaren bilgunea. Bereziki itsasoari zuzendutako informazio gunea eskaini nahi dute bertan. Itsas liburategia, ludoteka eta itsas munduarekiko elkarkide diren entitateei buruz infor-

mazio zabala dago bertan, eta hitzaldiak ere izaten dira.

Proiektu eta ideia ugari dituzte elkarteko kideek eta pixkanaka gauzatzen joango dira. Gerturatu, lagundu eta parte hartu nahi duen orok itsasontziak eta elkarteko kideen besoak zabalik dauzka. Itsas Gela Lagun Elkarteak sortu dute horretarako. Lehen esperientziaren ondoren itsasoaz maiteminduta gelditzen direnei gauza gehiago eta sakonago egiteko bidea eman nahi die elkarteak. Informazio gehiago nahi duenak [www.itsasgela.com](http://www.itsasgela.com) web orrian aurkituko du.





### Goizuetatik Pasaiara, lehorretik itsasora

Goizuetako eskolako ikasleek eta irakasleek hiruhilabetea behin irteera bat egiten dute. Lantzen ari diren gairen bati lotutako ekintza bat izaten da, eta beraz, lekuak horren arabera aukeratzeko dituzte. Ikasturte honetako lehen hiruhilabetea Pasaiara irten dira, itsasoa eta haren ingurunea bertatik bertara ezagutzera.

Ikasle guztiak sartu dira Mater itsasontzian, 55 guztira, Lehen Hezkuntzako 1. mailatik DBHko 2. maila artekoak. Lau taldetan banatu dira, zirkloa, eta bakoitza lantegi batean sartu da. Txikiak "Itsasoa hurbilduz" lantegian daude Soniarekin eta itsasoko arrainak eta landareak erakutsi dizkie. Sekula ikusi gabeko moluskuak, karra-marroak eta algak ikusi, ukitu eta marraztu dituzte. Irakasleak barrez begiratzeko die. *"Normalean telebistan soilik ikusten ditugun gauzak ikusi dituzte. Txirla bat ikusi eta txoratuta jartzen dira"*. Lehorretik etorrita, itsasoaren xarmak erakartzen dituela aitortu du irakasleak. *"Guretzat arrainak ez dira*

*existitzen, amuarrainak baizik. Goizuetan erreka daukagu eta han amuarrainak ibiltzen dira. "Arrain" hitza erabiltzea arraroa egiten zaie haurrei. Eta pentsa, gaur hemen arrain hitza ez ezik, medusa, moluskuak eta beste hainbat entzun dituzte. Informazio ikaragarri jaso dute"*.

Gelara itzulitakoan gaia landuko dutela dio irakasleak. *"Beti egiten dugu hori txango bat egin ondoren. Informazio gehiago bilduko dugu, liburutegira joan..."*. Baina gelako lanaz gain, bertara etorri eta bizitza aberasgarria dela dio duda izpirik gabe.

2. eta 3. mailakoak itsasertza ezagutu dute. Itsas paisaia eta itsasertza mendialdearekin konparatuta desberdina dela konturatu dira. Paisaia honek historian izan duen bilakaeraz jabetu dira puzzleen eta marrazkien bitartez. Kostaldea zaintzeak eta errespetatzeak duen garrantziaz kontziente dira saioa bukatu ondoren.

4. eta 5. mailakoak arrainen munduan murgildu dira. Arrainen ezaugarri morfologikoak eta fisiologikoak aztertzen dituzte arrainak neurtuz, margotuz,

***"Goizuetan erreka daukagu eta han amuarrainak ibiltzen dira, ez arrainak. "Arrain" hitza entzutea arraroa egiten zaigu. Eta pentsa, gaur hemen arrain hitza ez ezik, medusa, moluskuak eta beste hainbat entzun ditugu. Informazio ikaragarri jaso dugu lehorretik itsasora etorrita"***.

pisatuz...; hau da, modu zientifikoan.

Zaharrenak, berriz, DBHko 1. zirkloak, arrantza lantegian murgildu dira. Ohiko arrantza eta haren bilakera ezagutu dituzte, hots, arrantzaleek praktikatzeko dituzten eta praktikatu izan dituzten arrantza motak, kanabera, nasak eta tretzak erabiliz. Era berean, arrantzaren arazoak, espezie gakoak eta gehiegizko ustiapenari buruzko informazioa ere jaso dute.

Ikasle hauek ere nahiago dute liburutetik ikastea baino itsasontzian bertan ibiltzea eta soka hartu eta korapiloak egiten ikastea. *"Agi arrantza egitera joango gara!"* diote kabitu ezinik.

Irakasleak pozik gelditu dira itsasontzian bi orduko bisita egin ondoren. Haurrekin aritu diren hezitzaileak ondo prestatuta daudela jabetu dira, eta gaia menperatzen dutela. Ongi antolatuta dagoela iritzi dute eta oso interesgarritzat jo dute. Ikusi eta ikasi dutena baliagarri suertatuko zaie gelan lantzeko. Beraientzat ezezaguna den mundura gerturatu dira, eta horixe da Itsas Gelaren xedea, hain zuzen. •



# kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

## Web gune interesgarriak

Immigrazioari eta kultura eta hizkuntza aniztasunari loturiko hainbat informazio eta material didaktiko eskaintzen duten web guneen zerrenda umil bat luzatzen dizuegu oraingoan.

<http://www.habe.org> Euskara bigarren hizkuntza bezala irakasteko hainbat material didaktiko aurki daiteke, horietako batzuk etorkinei euskara irakasteko ere balio dutelarik. Espresuki etorkin helduei begira egina dago. AISA proiektua eta materialak daude.

<http://www.cult.gva.es> Generalitat Valencianako web orria. Hezkuntzako atalean hainbat informazio ematen da hezkuntza interkulturalari eta bigarren hizkuntzaren irakaskuntzari buruz. Material didaktikoen berri ere ematen da. Merez du ikustea.

<http://www.unige.ch/fapse/SSE/teachers/perregau/liens.html> Perregaux irakaslearen (Ginebrako Unibertsitatea) web gunea. Munduko hizkuntzen inguruko eta hizkuntza aniztasunaren inguruko nahiz horiek gelan lantzeko hainbat material didaktiko, informazio, bibliografia eta abar ematen da. Kultura aniztasuna lantzeko ere hainbat material didaktiko, erreferentzia, informazio... eskaintzen du. Merez du bisitatzea.

<http://jaling.ecml.at/> Hizkuntza aniztasuna lantzeko hainbat informazio, material didaktiko, bibliografia... Merez du ikustea.

<http://www.lingvo.info> Hizkuntzen inguruko informazio zabala eta hizkuntza aniztasunaren inguruko hainbat informazio ematen da. Haurrei begira gehiago dago helduei baino.

<http://www.ecml.at/> "European Centre for Modern Languages"

<http://www.xtec.es/recursos/cultura> Kataluniako Generalitatearen atarietako bat da. Informazio oso aberatsa ematen da kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruan. Material didaktiko eta baliabide asko eskaintzen ditu bai

hizkuntzen irakaskuntzari begira, bai eta etorkinei curriculumeko beste ikasgaiak irakasteari begira. Kultura eta hizkuntza aniztasuna oso zabalantzeaz gain, hau da, hainbat arlotatik, Kataluniako ikastetxeetako esperientzia zehatz batzuk ere azaltzen dira. Biziki interesgarria da orrialde hau bisitatzea, eta hala nola, esaterako ondorengo loturok: [http://www.xtec.es/recursos/lit\\_inf/contes](http://www.xtec.es/recursos/lit_inf/contes), <http://www.xtec.es/recursos/cultura/contes>, "El racó del clic", <http://www.xtec.es/recursos/clic/esp/info/index.htm> eta abar.

<http://www.ub.es/filhis/culturele/index.html> Bartzelonako Unibertsitateko Filologia Fakultatearen web orria. Biziki merezi du ikustea. Beste hainbat konturen artean, hainbat artikulu eta erreseina daude kulturartekotasuna eta gaztelania atzerriko hizkuntza legez irakastearen inguruan.

<http://www.ej-gv.es> Eusko Jaurlaritzako web gunea. Hezkuntza Saileansartuz gero, Hezkuntza Sailak ikasle etorkinen eskolatzeari begira kaleratu duen programa, diru laguntza eta abarren inguruko informazioa lor daiteke.

<http://www.gizartegaiak.ej-gv.net> Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Immigrazio Zuzendaritzako web gunea. Berton Immigrazioari buruzko Euskal Plana (2003-2005), ikastetxe nahiz herrietan interkulturalitateko proiektuak aurrera eramateko diru laguntzak, etorkinei laguntzen dien elkarten inguruko informazioa... aurki daitezke. Bestetik, EAEko hainbat udal txete eta Mankomunitatek gaur egun Immigrazio teknikariak dituzte, hala nola Donostia-

ko, Irungo, Pasaiaiko, Gasteizko, Bilboko, Barakaldoko, Ermuko, Eibarko eta Getxoko Udalak, Lea-Artibaiko Mankomunitateak, Mungialde Partzuergoak eta Busturialdeko Amankomunazgoak. Teknikari horiek beraien udalerriko edota mankomunitateko immigrazio gaiez arduratzeaz gain, egoeraren diagnosi bat eta Immigrazioari Buruzko Herriko Plan bat egin behar dute, arlo guztietan eragina duena edo izan ahal duena.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/publicaciones/pdf/orientacionesinmigrantes.pdf> Nafarroako Gobernuaren Kultura eta Hezkuntza Zuzendaritzak argitaratutako "Orientaciones para la escolarización del Alumnado Inmigrante".

[http://averroes.cec.junta-andalucia.es/contenidos/orientacion\\_diversidad.php3](http://averroes.cec.junta-andalucia.es/contenidos/orientacion_diversidad.php3) Haur etorkinak dituzten irakasleentzat baliabide askotarikoak eskaintzen dira: "Plan andaluz para atención a emigrantes", materialak...

<http://weib.caib.es> Educatiu de Les Illes Balears-eko web orrialdea. Hezkuntza programak, dokumentazioa, baliabideak, legedia, "Pla d'acolliment lingüístic i cultural"...

<http://www.carm.es/educacion/dgread/udicom> Murtziako Hezkuntza Sailak kaleratutako Hezkuntza Konpentsatoriorako unitate didaktikoak. Unitate horiek, bereziki, gaztelania ulertzen ez duten haur etorkinei begira daude.

<http://www.cnice.mecd.es/interculturalnet> Kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruan, Murtziako Unibertsitateetik kudeatzen den web orria: baliabideak, artikuluak, ikastaroak...

<http://www.mec.es> Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeritza.

<http://www.cnice.mecd.es/recursos> Espainiako MECen orrialdeetako bat da eta ikasle etorkinei begirako hainbat baliabide eskaintzen ditu.

<http://www.crec.info/> Centre de Recursos i Educació Continua

<http://www.educared.net> EDUCARED hezkuntza sarea

<http://www.reicaz.es> Espainiar nahiz atzerriko Immigrazioari buruzko legedia aurki daiteke bertan.

<http://www.troc.es/ecoconcern/gramc.htm> Grups de Recerca i Actuació sobre Minories Culturals i Treballadors Estrangers G.R.A.M.C.

<http://www.berrigasteiz.com/buscades.php> Gasteizko berritzeguneraren orria: "Ikasle atzeritarren harrera prozesua Haur eta Lehen Hezkuntzan"...

<http://www.berrikuntza.net> Durangoko berritzegunearen orria: hainbat datu interesgarri, material, argibide... ematen dira kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruan. Merez du ikustea.

<http://cvc.cervantes.es/debates/debates.asp?vdeb=27> Cervantes institutuaren web orria: "Inmigración y enfoque intercultural en la enseñanza de segundas lenguas en Europa". Foro interesgarria.

[http://www.pnte.cfnavarra.es/profesorado/recursos/multiculti/cd\\_espanol/index.htm](http://www.pnte.cfnavarra.es/profesorado/recursos/multiculti/cd_espanol/index.htm) (Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza orria) "Enseñanza del español como segunda lengua a alumnos inmigrantes en Enseñanza Primaria y Enseñanza Secundaria. Tareas realizadas por profesores participantes en un seminario de formación del profesorado inscrito en un proceso formativo abierto en la actualidad".

<http://centros1.pntic.mec.es/cp.gonzalo.encabo> Talayuela-ko (Caceres) Lehen Hezkuntzako ikastetxeko web orrialdea. Hezkuntza Konpentsatorioko programetan, Estatu Espainiarreko Kalitatezko lehen saria du. Bere proiektutik kulturartekotasun proiektua nabarmentzen da bereziki.

<http://centros6.pntic.mec.es/ies.de.illescas> Condestable Álvaro de Luna de Illescas (Toledo), Bigarren Hezkuntzako Institutuko web orrialdea. Castilla-La Mancha-ko kulturartekotasun proiektuetan lehen saria du.

<http://www.educa.rcanaria.es/Usr/Apdorta/default.htm> Tenerifeko "San Cristobal" ikastetxearen web orria: legedia, curriculum, baliabide didaktikoak...

<http://epaa.asu.edu/epaa/v9n20.html> Soriako Hezkuntza Unibertsitateko web orrialdea. Eskoletan kulturantzatasuna nola landu eta abarren inguruko informazio asko.

<http://didac.unizar.es/jlbernal/docudeb.html>

<http://redderedes.upn.mx/> Mexikoko Kulturarteko Hezkuntzaren sarea

<http://www.aulaintercultural.org> Kulturartekotasunari buruzko web gunea. Hitzaldiak, material didaktikoak, azken berriak... ematen dira. Hainbat hizkuntzatan irakur daiteke. Informazio aberatsa eskaintzen da.

<http://www.aulaintercultural.org/conocer/experiencias/index.html> "Estrategias educativas para la interculturalidad", Ángel Luis Montilla Martos (testu idatzia)

<http://www.aulaintercultural.org/conocer/lecturas/index.html> "La escolarización de hijas de familias inmigrantes" Instituto de la Mujer (testu idatzia)

<http://www.cnice.mecd.es/interculturalnet/archivos/decalogo.rtf> "Decálogo para una educación intercultural", Francesc Carbonell i Paris (testu idatzia)

<http://www.cnice.mecd.es/interculturalnet/archivos/eintercultural.rtf> "La Educación Intercultural: concepto, paradignas, realizaciones", M<sup>a</sup>. Teresa Aguado Odina (testu idatzia)

<http://www.contaminame.org/Main.html> Kultur Mestizaiarako Fundazioa.

<http://www.educa.aragob.es/cpamanza/intercultural/inter.html> Kulturartekotasuna hezkuntzan lantzeko baliabideak.

<http://www.enredate.org/eus/htm/index.htm> UNICEF-en web orria euskaraz

<http://www.entrecultures.org/home.htm> Jaume Bofill fundazioak sortutako zerbitzu eta errekurtso programa, non hezkuntza eta immigrazioan lan egiten duten pretsona eta erakundeek mintegi iraunkorren, eztabaiden eta abarren bitartez parte hartzen dute.

<http://www.eurosur.org/survival/portada.htm> Indigenen inguruko informazio anitza eta horren aurrean edota kulturantzatasunaren aurrean talde horrek haurrek sentsibilizatzeko duen programaren inguruko informazioa.

<http://www.fbofill.org> Kulturartekotasunarekin lotutako hainbat material, lotura eta hezkuntza programa aurki daitezke web orrialde honetan.

<http://www.fuhem.es/CIP/EDUCA> Garapenerako hezkuntza lantzeko errekurtso didaktiko, artikulu eta abarrez gain, gatazka eta nazioarteko elkarlana, garapena, arrazakeria eta kulturantzatasuna lantzeko informazio eta baliabideak.

<http://www.fuhem.es/CIP/EDUCA/intercul/interc.htm> Arrazakeria eta kulturantzatasuna lantzeko unitate didaktikoak.

<http://www.grec.net/LLIVIRT/MP.PGM?F=TOMB2#drets> "La diversitat explicada als nens". Katalanez dago. Haurrentzat irakurketarako liburu interesgarriak katalanez:

*El racisme, Gent de tota mena i de tot arreu Jo vinc de, Jo sóc de, Contes, Els dretshumans...*

<http://www.diba.es/cerc/interaccio2002/cursgen/bibliocg.htm> Bibliografia anitza kulturantzatasuna eta immigrazioaren inguruan.

<http://www.mundolatino.org/index.htm> Hezkuntza web orrialde askotarikoaren lotura orrialdea. Merez du "El tesoro del Arcoiris" ipui- nen atala ikustea.

<http://www.lbe.unesco.org> UNESCO erakundearen Hezkuntza Bulegoa. Beste dokumentu askoren artean: "La educación para todos para aprender a vivir juntos: Contenidos y estrategias de aprendizaje - problemas y soluciones".

<http://www.iepala.es> "Instituto de Estudios Políticos para América Latina y África". Hezkuntza, giza eskubideak, immigrazioa... gai horien inguruko dokumentazioa.

<http://www.imsersomigracion.upco.es> Immigrazioaren inguruko estatistika, legedia, dokumentazioa...

<http://www.intermonoxfam.org> Herrialde pobreen garapenerako lan egiten duen GKEa: garapenerako proiektuak, merkataritza justua, argitalpenak...

<http://www.intersindical.org/stepv/enxarxats/enxarxats.htm> Valentziako STE sindikatuaren web orrialdea. Dokumentu, helbide, baliabide didaktiko, bibliografia... interesgarri aunitz. Ikus: <http://www.intersindical.org/stepv/enxarxats/immigracio.htm>

<http://www.iteachilearn.com> Ingeleseko dagoen web gunea bada ere, kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruko informazio aberatsa eskaintzen da: "Educational ideas and solutions", "Jim Cummins web", "Bilingual education", "E-lective language learning", "Multicultural education" eta abar.

<http://www.sosracismo.org> Arrazakeria, immigrazioa eta kulturartekotasuna gaiekin zerikusia duen informazio, material didaktiko, bibliografia, hitzaldi eta abarren berri ematen da.

<http://www.mugak.org> Immigrazio gaiei buruz aldizkarietan (euskal aldizkariak barne) azaltzen diren notizia anitzak sailkatuta aurki daitezke orrialde honetan.

<http://www.mec.es/cescs/conclusiones-rece.htm> "Movilidad, Educación Intercultural y Ciudadanía" Conclusiones de la Conferencia de la Red Europea de Consejos Escolares (Madril, 2000/09/22-23) (testu idatzia).

<http://www.mec.es/sqci/socrates/proyearea.htm#El> Kulturartekotasunarekin zerikusia duten europar proiektuak aurrera darमतازaten espainiar hezkuntza zentroen inguruko informazioa.

<http://www.nodo50.org/ioe> Colectivo Ioé-ren web orrialdea. Immigrazioaren inguru-

ko ikerketa, ikastaro, mintegi eta abarren inguruko informazioa.

<http://www.nodo50.org/movicaliedu/enguaitintercultural.pdf> "La educación intercultural en la sociedad multicultural" (testu idatzia).

<http://www.pangea.org/aecgit/educacion.htm> "La Asociación de Enseñantes con Gitanos y la Educación Intercultural" (testu idatzia).

<http://www.pangea.org/edualter> Bakea, garapena eta kulturantzatasuna lantzeko materiala, proposamen pedagogikoak, liburuen erreferentziak, bideoak, jolasak, kulturantzatasunarekin lotura duten pertsona eta taldeen zerrenda, egitarauen egutegia, ikastaroak, taillerak...

<http://www.pangea.org/sedupaz> Bakearako Hezkuntzaren Mintegi argitalpenak.

<http://www.ptmhirugarren.org> "Hirugarren mundua eta bakea" GKEaren web orria. Kooperazioa, bakerako sentsibilizazioa eta hezkuntza lantzeko materialak eta dokumentuak.

<http://www.ucm.es/info/especulo/ele> Espéculo. Revista de Estudios Literarios. Madrilako Complutense Unibertsitatea. Besteak beste, hainbat artikulu kultura, kulturantzatasuna eta kulturartekotasunaren inguruan.

<http://www.ugr.es/~ldei/> Granadako Unibertsitateko Laboratorio de Estudios Interculturales. Immigratio, arrazakeria, xenofobia, gatazka etnikoak, nazionalismoa eta abarren inguruko hainbat ikerketa. Dokumentazio aberatsa gain, GKEtako web orriekin loturak, kulturartekotasuna aztertzen duten beste hainbat zentro eta erakundeekin loturak... aurki daitezke.

<http://www.um.es/tonosdigital/hemerio/numeros.htm> Ikerketa filologikoen aldizkari elektronikoa. Ezezagun zaizkigun hainbat hizkuntzen inguruko informazioa.

<http://www.UNESCO.org/general/spa> Hirugarren munduko haurren eskolatzetako, alfabetatzea, hezkuntza instituzioak, hezkuntza sistemak, hizkuntza aniztasuna eta abarren inguruko material didaktikoez gain, hainbat GKEekin loturak.

[http://www.unesco.org/courier/2000\\_04/sp/doss0.htm](http://www.unesco.org/courier/2000_04/sp/doss0.htm) Albistaria. 2000ko apirila. Hileko gaia: munduko hizkuntzei buruzko monografikoa, "cultura clonada y mestizaje"...

<http://www.intercult@net> Kulturartekotasuna lantzen da eta gai honen eztabaidarako hainbat foro daude bai irakasle, bai guraso bai eta gazteei begira.

[http://www.unesco.org/courier/2001\\_09/sp/](http://www.unesco.org/courier/2001_09/sp/) Albistaria. 2001eko iraila. Hileko gaia: arrazakeria...

<http://www.unescoeh.org> UNESCO

etxea: Euskal Herriko UNESCOren web orria: hezkuntza, ingurumena, lankidetzeta, bake hezkuntza, herri indigenak...

[http://www.gencat.es/icm/politiques\\_immigracio/esessions.htm](http://www.gencat.es/icm/politiques_immigracio/esessions.htm) Institut Catalá de la Mediterrània (2001), Políticas de inmigración. Materiales y documentos. "Diversidad cultural y lingüística. Experiencia francesa", "La experiencia holandesa", "La experiencia alemana"... bezalako gaiak lantzen diren ikastaroen aktak irakur daitezke.

<http://www.oei.co/oeivirt/> "Educación Bilingüe Intercultural", Revista Iberoamericana de Educación, Nº 13

<http://www.oei.es/> Orrialde guztiz interregari eta baliagarria Hego eta Ertamerikako hezkuntza sistema eta hezkuntza proiektuen inguruan informazioa izateko.

<http://www.ciberaula.net/~rec.cav4> Kulturartekotasuna lantzeko baliabideak, loturak eta bibliografia.

<http://www.malaga.acoge.org/documentos/honor.htm> Dokumentazioa: Conferencia internacional de educación intercultural, Málaga, 2002

<http://www.cnice.mecd.es/interculturarnet/grupos.htm> Kulturartekotasuna lantzeko hainbat helbide, testu, material... berri ematen da.

<http://www.cnice.mecd.es/recursos2/inmigrantes/inmigrantes.htm> CNICE-eko (Centro Nacional de Información y Comunicación Educativa) orrialdea, non besteak beste, ikasle etorkinei etorkinen elkartearen inguruko informazioa eskaintzen zaien.

<http://www.cvc.cervantes.es/aula/luna> "Centro Virtual Cervantes" en web gunea. Etorkinen hainbat testigantza eta elkarrizketa lor daitezke. Etorkinei gaztelania irakasten ari diren irakasleentzat baliagarri gerta daitezkeen informazio ugari.

<http://www.infoera.org> ERA elkartearen (Asociación ERA para la Integración y Ayuda al Inmigrante y al Refugiado) web orrialdea. Espainiara datozen etorkinentzat hainbat informazio ematez gain, etorkinen jatorrizko herrialdeari, kulturari eta beste hainbat konturi buruzko informazio ugari lor daiteke. Gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez eta errumanieraz irakur daiteke.

[http://www.intermon.org/educacion/esc\\_edu.htm](http://www.intermon.org/educacion/esc_edu.htm) INTERMÓN-en web orrialdea, non Haur Hezkuntzatik hasi eta Bigarren Hezkuntzara arte elkartsuna lantzeko baliabideak eskaintzen diren.

<http://www.nodo50.org/ddhmuje-res/dossier/web/cap1/intro.htm> Giza eskubideak, emakumea eta immigrazioari buruzko hainbat informazio ematen da. Kulturartekotasunaren aurrean jarrera positiboa zabaldu nahi du ikasleen artean.

<http://www.tolerance.org/pt/index.html> Zeinahi gaien aurrean tolerantzia izateko, hainbat baliabide eskaintzen dira. Ingelesez dago.

[http://www.waece.com/clubninyos/club\\_fundamentacion.html](http://www.waece.com/clubninyos/club_fundamentacion.html) Haur Hezkuntzaren "balioen hezkuntza" lantzeko baliabideak.

<http://www.unionromani.org/bienve.htm> Unión Romani-ren web gunea. Ijitoen kulturaren inguruko informazio anitza.

<http://www.verdeislam.com> Islamiarraren inguruko aldizkari digitala kultura, erlijio... El Azami, U. & Herrero Muñoz-Cobo (1996) "Pedagogía de la lengua y de la cultura árabe", Verde Islam, Nº 4

<http://www.webislam.com> Islamaren inguruko (erlijio, hezkuntza, pentsamendu islamiarra...) web gunea. Gaztelaniaz dago.

<http://www.webarabic.com> Arabiar kultura eta hizkuntzaren inguruko orrialdea. Frantsesez dago.

<http://www.zawiya.org> Arabiar kultura eta bereziki islamaren inguruko orrialdea

<http://www.pangea.org/ascib> ASCIBen (Asociación Socio-Cultural Ibn Batuta) web orrialdea. Marokoar eta espainiar pertsonen osotua, eta bere helburuetako bat marokoar eta espainiar pertsonen artean elkarbizitza egokia eta errespetuzkoa sortzea da. Horretarako, hainbat informazio eta baliabide eskaintzen ditu gai nitzen inguruan.

<http://www.andaluces.org/embajadas/marruecos.htm> Marokon dauden andaluziar enbaxaden inguruko informazioa

<http://www.arabic2000.com> Arabiar hizkuntzaren inguruko orrialdea. Ingelesez dago.

<http://www.arabismo.com> Arabiar hizkuntza eta arabismoari buruzko hainbat datu, informazio... ematen da.

<http://www.cadizayto.es/interreg/marruecos/paisma.htm> Marokoren inguruko informazioa ematen da: ekonomia, hezkuntza, biztanleria...

[http://www.cnice.mecd.es/recursos2/convivencia\\_escolar](http://www.cnice.mecd.es/recursos2/convivencia_escolar) Eskolako bizikidetzeta eta indarkeria nahiz horren prebentzioa lantzen dira María José Díaz Aguado Madrilako Complutense Unibertsitateko Hezkuntzaren Psikologia ikasgaiko irakaslearen web orrialde honetan. Hainbat informazio, material, aholku ematen dira eta baita gai honen inguruko beste web orri interesgarri batzuekin loturak.

<http://www.gangwar.com> Portaera arazoak, bandalismoa eta ikasle biolentoak dituzten gazteak detektatzeko, prebenitzeko... hainbat errekurtso eta bibliografia ematen da. Bereziki irakasle eta gurasoei begirako materialak aurki daitezke. Gai honen inguruko beste orrialde batzuekin lotura zuzenak ere baditu. Ingelesez dago.

# Erakusketa

## Etorkinei euskara irakasteko material didaktikoen eta proiektuen truke-erakusketa

### Urtarrilean Bilbon

Informazio gehiago eta parte hartzeko xehetasunak:

EHIGE: bige@ehige.org  
Itziar Aramaio: 655 723 965

## Irakurleen txokoa

*\* Rafa naiz. 14 urte dauzkat. Marokokoa naiz. Marokoko Tetuan herrian bizi nintzen. Duela 6 urte Ondarrura etorri nintzen. Irakasleak esan dit txoko honetan nik ere idatzi ahal dudala. Hala bada, aukera hau aprobetxatzera noa, gaur egun jende askok ez baitu islamiar erlijioa ezagutzen eta uste du terrorismoarekin lotuta dagoela. Eta ezta horrela! Islamiar erlijioak bost oinarri nagusi ditu: 1. Jainko bakar batean eta Mahoma profetaren sinestea. 2. Egunean bost aldiz otoi egitea. 3. Hilabetez ramadana egitea. 4. Urtebetez aurreztuta duzun dirutik pobre bati horren zati bat ematea. 5. Bizitzan behin Mekara joatea (dirurik ez dutenak bost oinarri horietatik salbu daude). Nire ustez atentatuak egiten ari diren pertsonak ez dute islamiar erlijioa ongi ezagutzen eta lortzen duten gauza bakarra gure erlijio, kultura eta nazio arabiarrei fama txarra ematea da.*

Rafa Bachiri

*\* Jakin nahiko nuke ea norbait haur etorkinei euskara irakasteko material didaktikorik biltzen edo sortzen ari ote den, eta zerbait argitaratuta edo lortzeko moduan dagoen.*

Maite

**Erantzuna:** zerbait egon badago edonork lortzeko moduan eta materiala sortzen hainbat jende dabil, baina banakoen edo elkarte konkretuen eskuetan dago. Edonola ere, aurki, 2005eko urtarrilean, haur etorkinei euskara irakasteko irakasleek sortutako material didaktikoen truke-erakusketa egiteko asmoa dago, eta hor, hainbat eta hainbat material lortu ahal izango da. Topaketa horren berri, besteak beste, **hik hasin** emango da lekua eta eguna zehazten direnean. Beraz, adi egon!

*\* Gure ikastetxean bereziki etorkin hegoamerikarrak daude. Hainbat arrazoigatik, posible balitz, beraien hezkuntza sistemen inguruko informazioa lortu nahiko genuke. Eskerrik asko.*

Donostia

**Erantzuna:** hainbat web orrialde daude horren inguruan, baina osatuena edo birilnetakoa aurreko orrialdeetako zere-  
rendan agertzen den [www.oei.es](http://www.oei.es) da.

### Txoko hau zeurea duzu, irakurle.

Egin galderak edo bidali erantzunak helbide hauetara:  
[itziaramayo@msn.com](mailto:itziaramayo@msn.com) edo [aldizkaria@hikhasi.com](mailto:aldizkaria@hikhasi.com)

Zure izena edo ikastetxearen izenarekin batera, helbide elektronikoa jartzea eskatzen dizugu, erantzuna emateko zurekin zuzenean harremanetan jar dadin nahi duen oro.



Bide eginean jarraitzen  
dugu zuen ekarpenekin  
eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu  
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa  
duen edonoren parte-  
hartzea gustu handiz  
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo  
euskal hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.



# Berriak abenduak

## Ilunetik argira Elbira Zipitria deskubritzen duen liburua



Resu Abasolo Gallastegi



Juana Lopez de Munain



Arantxa Urbe Irazusta

### Liburuaren mamia

Liburuak bi zati nagusi ditu: bere bizitzari buruzkoa lehendabizikoa, eta bere jardun pedagogikoari buruzkoa bigarrena. Lehenengo zatia izenburuak dioen bezala, "Beretzat gorderik zituenak" azalaratzen dira. Pertsona isila izanik, uste baino kontu gehiago zituen ezkutuan.

Jardun pedagogikoari dagokion atala bere andereño lanean zentratzen da. 36ko gerraren aurreko eta ondoren mugimenduak lotu zituen Elbira andereñoak. Liburuaren orrietan garai hartako giroa deskribatzen da, eta baita bere hezkuntza ekimenaren nondik norakoak ere: haren iturri pedagogikoak, norabide berri-tzailea, zotzen erabilpena irakurtzen eta idazten ikasteko, euskal kulturaren transmisioa, haren eskolen antolaketa... Hori guztia bere ikasle izandakoen koadernoetako lanekin osatuta agertzen da liburu honen orrialdeetan.

Liburuaren bukaeran Elbira eza-gutu zuten hainbaten hitzak bildu dira, eta baita kronologia osatu bat ere.

Hik Hasik *Ilunetik argira, Elbira Zipitria* liburua argitaratu berri du. Euskal irakaskuntzaren hastapenetan jardun zen andere onari omenaldi xume bat da, egindako ekarpena ezagutu eta ahantz ez dezagun. Resu Abasolo, Juana Lopez de Munain eta Arantxa Urbe izan dira Elbiraren bizitza eta lan pedagogikoa ikertu ondoren liburu erakargarri bezain interesgarria atordu dutenak.

### Resu eta Juana, nondik sortu zen Elbirari buruzko liburua egiteko ideia?

Magisteritza ikasketetan beste mende batzuetan hainbat pedagogok egindakoaren berri jasotzen zen, baina ez, ordea, gure herrian izan direnena. 80ko hamarkadan irakasleen artean askotan aipatzen zen Elbira Zipitriaren metodoa eta jakin-minak bultzata hasi ginen zenbait datu hartzen eta informazioa jasotzen. Gero, hori guztia argitara ekartzea beharrezkoa zela ikusi genuen eta Hik Hasira jo genuen. Orduz geroztik, Arantxa Urberen esku gelditu zen testuaren idazketa.

### Nondik abiatu zuten ikerketa?

Lehenengo liburutegietara eta artxiboetara jo genuen. Aurkitutako dokumentuak aztertu genituen, eta batez

ere aipamenekin geratu ginen. Handik zerrenda luzeak egin genituen: Elbira ezagutu zuten irakasleena, lagunena, ingurukoena... eta poliki-poliki jendearekin kontaktatzen hasi ginen. Horietako asko oso nagusiak dira eta benetan zaila egin zaigu ikerketa. Elkarriketa dexente egin ditugu urteotan eta poliki-poliki dena lotzen joan gara. Aurkikuntzarik handiena bere ikasle-en 61 koaderno izan dira. Horrek asko lagundu digu bere lana aztertzen.

### Zer ikertu duzue?

Bi gauza. Alde batetik, haren bizitzari buruzko datu asko bildu ditugu, gehienak ezezagunak ziren. Elbirak gutxi hitz egiten zuen bere bizitzaz, berarekin lanean ibilitakoek ere oso gutxi

**Aurkikuntzarik handiena bere ikasleen 61 koaderno izan dira. Horrek asko lagundu digu bere lana aztertzen.**

dakite. Azken urte t´erdian egin ditugu aurkikuntzarik handienak berarekin luzaroan bizi izan zen lehengusina amerikar batengana jo dugunean.

Bestalde, jarduera pedagogikoa aztertu dugu eta zehatz-mehatz aurkeztu dugu liburuan: iturriak, hastapenak, bilakaera, helburuak, metodologia, edukiak eta abar.

**Zerekin egin duzue topo?**

Elbirak ez zuen ezer idatzi. Horregatik, guretzat zailena iturri fidagarriak aurkitzea izan da. Ilunean zegoen emakume handi eta gogor batekin egin dugu topo, adore handikoa, jendearen artean sentimendu ugari sortu zituen. Ikerketa aurrera eramateko animatu eta lagundu gaituen jende asko aurkitu dugu bidean, euskaldunok ez genuke-elako ahaztu behar Elbira.

**Zerk harritu zaituzte gehien, bai onerako eta bai txarrerako?**

Onerako, pedagogo honek egindako lanak eremu guztietan. Oso interesgarria izan da. Txarrerako, Elbira Zipitria oso isila izan zenez eta ezer idatzi ez zuenez, egungo eskoletan ezin dela arrasto handirik aurkitu.

**Zuen ustez zer garrantzi izan zuen Elbirak euskal irakaskuntzan?**


Liburuan asko aipatzen ditugu. Alde batetik, bere apostua euskararen aldekoa izan zen. Horretaz gain, hizkuntzen apendizaiia eta eleaniztasuna; ikasleen aktibitatea, aniztasunaren trataera, matematika ikasteko prozesua, logika, zientziak ikasteko behaketari eta esperientziari ematen zien garrantzia...

**Zer ekarpen egin zuen Elbirak eta zer ekarpen egin du liburuak?**

Eskola euskalduna, eleanitza, zenbait arlo ikasteko asmatutako materialak, ikasleen aktibitatea, eskolatik kanpo egindako jarduerak... dira Elbiraren ekarpenak.

Liburuaren ekarpenak, berriz, pedagogo interesgarri bat aurkeztea. Elbira Zipitriak irakaskuntza mundura ekarritako berriak ezagutzeko aukera ematea. Ezin dugu ahaztu Elbira Zipitria exiliotik etorri zenean eskola basamortu bat zela.

**Esan liteke Elbira Zipitria izan zela 36ko gerra aurreko eta gerra ondorengo euskal eskolaren mugimenduak lotu zituenena.**



Poliedroak hainbat alde ditu Elbira Zipitriak. Zein aldetan begiratu halako sentimenduak sorraraziko dizkizu.

Abertzalea, euskaltzalea, fededuna eta klase kontzientzia handikoa, isilpean eta ausardiaz jokatu zuen frankismoaren urte beltzenetan.

Ikastolaren hazia, eta euskal eskolaren gerra aurreko eta gerra ondorengo mugimenduaren lokarria.

Adostasun ezen gainerik, asko zor diogu euskaldunok. Liburu honekin lanaren zati bat dago egina; herri oroimenetik berreskuratu nahi izan dugu, eta zor diogun esker ona erakusteko ale bat ipini dugu.

Balio beza lan honek euskaldunok Euskal Herriko historia idazten dugunean, Elbira Zipitria ez ahanzteko eta merezi duen lekuan ipintzeko.

# Argitalpenak



## Koadriletan euskararen erabilera suspertzeko egitasmoaren emaitzak

Diego Egizabal  
EUSKADIKO KUTXA

Kuadrillategi egitasmoa helburu batekin sortu zen batez ere: koadriletan euskararen erabilera areagotzea. Pasai Antxon hasi, Lasarte-Orain jarraitu eta beste hainbat herritara zabaldu da egitasmoa eta gazte asko dira esku hartu dutenak. Liburu honetan ibilbide horren emaitzak biltzen dira •



## EAEko irakaskuntzaren egoerari buruzko txostena (2000/02)


Euskadiko Eskola Kontseilua  
EUSKO JAURLARITZA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren eginkizunen artean bertako hezkuntza sistemaren egoeraz txosten bat burutzea eta ezagutaraztea dago. Nahiz eta oraingoa berandu xamar argitaratu, emaitzak hor daude: 2000/02 urteetako diagnostikoa eta kezka iturri diren puntuak azpimarratzen dira •



## Euskal hiztegi historikoa Txubillo taldea GAIK

Erdi Arotik aurrerako lauhun bat kontzeptu historiko biltzen eta definitzen dira, besteak beste, terminoak, getaerak eta erakundeak. Denak Euskal Herriko historiarekin zerikusia dutenak dira. Material interesgarria da eskolako nahiz unibertsitateko oinarriak sendotu nahi dituen ororentzat eta Euskal Herriko historiaren eta Euskal Herriak munduan izan duen zeregin historikoa azjabetu nahi duenarentzat •




## Munduko ibaien poemak Juan Kruz Igerabide ELKARLANEAN

Kontinente guztietako ibaiak ageri dira liburuan banaka eta bakoitza mapa batean kokaturik. Ibai bakoitzak bere poema du, eta baita bere mapa eta marrazkitxoak. Aipagarria da testuen eta Lorena Martinez ilustratzailearen irudien arteko harmonia. Zentzu horretan, liburu originala da. Era berean, interesgarria da ikustea ibai bakoitzak zer ekarri dion burura egileari •



## Jony eta bere lagunak Jon Suinaga

Komiki tiren liburuak modan ez dauden garai honetan kaleratu da liburuxka hau. Euskal Herriaren eta bertan kokatutako komikiaren umorea eta kritika soziala batzen dira (kontsumismoa, ekologia, langabezia, maitasuna...), hausnarketarako gonbita ere luzatzen dutelarik. Gazteei bideratuta dago bereziki, protagonistak beraiek ere hala direlarik •



## Aitorrek bi ama ditu Mª Jose Mendieta EREIN

Ipuin honetako protagonista Aitor da eta bere bi amekin bizi da Nafarroako herri txiki batean. Oso zoriontsu da ama Mirentxu eta amatxo Itziarrek, baina etxetik kanpo arazo ugariarekin egiten du topo bi ama dituelako eta besteengandik desberdina delako. Desberdintasun horri nola aurre egiten dion eta nork laguntzen dion ongi kontatzen duen liburu atsegina da •

# Hasi gara ilargiaren sekretua ezagutzen

Azaroaren 14an estreinatu zen Hik Hasik ekoiztu duen *Ilargiaren sekretua* filma Donostiako Kursaalaren. Bertaratu ziren haurrek zein helduek keinurik egin gabe begiratu zioten pantaila handiari. Pirritx eta Porrotxen ateraldiak barre egin zuten. Madame Banu gaiztoaren laguntzaile Bertol eta Roke-ren trakeskeriekin algarak entzun ziren. Eta protagonistei lagundu nahian ipurdia altxatu zuten batzuek behin baino gehiagotan, geldirik eta ezer egin gabe egon ezinik.

Filma hasi aurretik aktore guztiak oholta gainera igo ziren eta Alicia Garaialde zuzendariak hitz egin zuen denen izenean. Proiektuan parte hartu duten guztien ilusioa nabarmendu zuen, ilusio horiek guztiak nahastuta egin baita luzemetraia.

## Filma eta material pedagogikoa

Hik Hasiren xedea euskal zinemagintzan ekarpen berri bat egitea izan da. Izan ere, euskaraz ezer gutxi eginda zegola ikusirik, hutsune hori bete nahi izan da. Horrez gain, alderdi hezitzaileari garrantzia eman zaio luzemetraia egiterakoan, bai gidoian eta bai ematen diren mezuetan.

Edonola ere, Hik Hasiren ekarpena ez da filmarekin bukatuko. Gaur egun irudiak duen garrantziaz oharturik, hori lantzeko laguntza luzatu nahi du eta horretarako material pedagogikoa prestatzen ari da. Alde batetik, filmarekin transmititzen diren mezuak ikusarazteko ariketak egongo dira. Eta bestetik, filma egiteko erabilitako baliabideak erakutsiko dira: gidoia, plano motak, irudien manipulazioa, soinua... Eta hori guztia adin bakoitzari beretzako moduko proposamenak egokituta. Azken finean, hausnarketa bultzatu nahi da, zer eta nola erakusten zaigun ohartzeko eta horren aurrean kritikoak izateko.



Luzemetraian parte duten aktoreak eta talde teknikoa oholta gainera igo ziren. Alicia Garaialde zuzendariak hitz egin zuen denen izenean. Eta ondoren... ilargiaren sekretua deskubritu zuten (Argazkiak: Imanol Otegi, Argazki Press).

## Piraten mahai jolas berria

Urtxintxa Eskolak **Piratak altxorren bila** mahai jolasa proposatzen digu. Euskal Herriko kostaldeko hainbat herritatik abiatuta, itsasoa zeharkatu eta irla batera iritsi ondoren, hango altxorra bilatu behar da.

Abentura bidaia horretan hainbat traba gainditu beharko dira, eta hori jolasen bidez egingo da: arau soileko jolasak, oinarrizko estrategia jolasak, galdera-erantzun jolasak, ausazko jokoa... denak taldean jolasteko modukoak.

Aldi berean, mahaijoko honek norberaren heziketa gaitasunak garatzeko aukera ematen du. Besteak beste, ahozko espresioa lantzen da, eta baita ere gorputz espresioa, espresio artistikoa, sormena, ideien lotura, azkartasuna, sozializazioa, euskarazko hiztegia, itsas munduari eta euskal piratei buruzko kontuak, eta bereziki, elkarlana. Jokalari bakoitzak besteekin lankidetzan aritu beharko du, bestela jolasa zailagoa izango baita.

## “Eurodimentsioa”: Europa ezagutzeko materiala

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak **Eurodimentsioa** izeneko materiala sortu du, eta izenak dioen bezala, Europaezagutzeko xedez egina dago. Bi CD sortu ditu, bata Batxilergoko eta DBHko ikasleei zuzendua eta bestea Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleei.

Lan berri honen helburu nagusiak hiru dira: Europari buruzko ezagutza areagotzea; European bizi ahal izateko trebezia soziologikoak, teknologikoak eta komunikatiboak eskuratzea; eta norberaren nortasunetik abiatuta Europako beste herriekin elkarbizitza bideratzea, partekatzen ditugun balioak eta printzipioak bultzatuz.

Ikasleentzako CDak *Eupen bitakora kaiera* du izena eta eurodimentsioa lantzeko hainbat proposamen biltzen dira bertan, jakintza arlo guztietan lantzeko modukoak. Jorratzen diren gaietako batzuk hauek dira: hizkuntzen aniztasuna, mitoak, erlijio aniztasuna eta sinesmena European, artea, musika, asmakuntzak, Europako erakundeak eta horien historia, Europa gazteen zat... Jarduera askotan munduan ospea duten euskal idazle, margolari, zientzialari edota politikari baten bizitza eta lana aztertzeetik abiatzen da, eta ondoren Europara zabaldu.

Bigarren CDa Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleei bideratua dago. Bi ardatz ditu: batetik, eurodimentsioa lantzeko informazio askotarikoa biltzen da, eta bestetik, European lantzeko errazteko bideak eta tresnak eskaintzen dira, hau da, ikastetxean nola landu azaltzen duten proiektuak eta esperientziak. Beraz, CDan aurki daitezkeen edukien artean hauek daude: web orri interesgarrien helbideak, arlo askotako europar programa eta proiektuen berri, irakasleen topaketa, truke eta mintegiei buruzko informa-

zioa, programa, proiektu eta ekimenei buruzko azalpenak...

Materiala euskaraz dago, nahiz eta zenbait kasutan ingelesa, gaztelania, frantsesa edo beste hizkuntzak tartekatzen.

Hezkuntza arloan europar dimentsioa zabaltzeko ahalegin honetan, CD horiez gain beste hainbat ekimen ere eramaten ari da aurrera Hezkuntza Saila, 2003/06 bitarteko berrikuntza programetako bat baita Europar Dimentsioa. Horrela, besteak beste, aipatu dimentsioari buruz bibliografia eta materialak bildu eta irakasleen esku jarriko ditu; ikastaroak antolatuko ditu; eta europar dimentsioa curriculumaren barruan sartzeko laguntza emango du.



# Hik Hasi mintegiak

## Heriotza heziketan

### Helburua

- Eduki teorikoak jorratzea eta kasu praktikoak aztertzea.  
- Interbentziorako estrategiak bideratzea. Hau da, heziotza modu pedagogikoan aztertzea.

### Metodologia

- Material espezifikoen azalpenak.  
- Joko dinamikoak: simulazioa, aulki beroa, eztabaidak, idatziak, marrazkiak, musika, erlaxazioa, testak...

### Egutegia

Urtarrilak 11 eta 25  
Otsailak 1 eta 15  
Martxoak 1 eta 15  
Apirilak 5 eta 19  
Maiatzak 3, 17 eta 31

**Ordua:** 18:00- 21:00

**Lekua:** Donostiako Lugaritz kultur etxea

**Prezioa:** 400 euro.

**Talde kopurua:** gutxienez 10 eta gehienez 15.

**Emaileria:** Patxi Izagirre psikoterapeuta

## Haurrentzako masajea

### Helburua:

Prebentziorako nahiz haurren beharrak ezagutzeko oinarriko baliabideez jabetzea. Horretarako, garapen funtzionala landuko da, hori baita osasunera eta patologietara gerturatzeko bidea.

### Metodologia

- Mintegian hiru alderdi landuko dira: teorikoa, praktikoa eta kasuen azterketa.

- Ikus-entzunezko materiala erabiliko da.

- Garrantzitsua iruditzen zaigu profesionalak erreferentzia oinarri batzuk edukitzea horiei heltzeko, betiere haurren errealitatea, familieren ekosistema eta eskola sistema ulertuz. Kontziente izan behar da haurrekin aritzean garrantzitsua dela nola egon eta nola egin.

### Arlo teorikoa

1- Kontaktua + sentitzea = kokapena

2- Masajearen oinarri neurobiologikoak, fisiologikoak eta energetikoak.

3- Masajea giza heldutasunaren prozesuari loturik, ikuspegi postre-chiarretik begiratuta:

- Haurdunaldia, erditzea eta lehen urteak.

- Prozesu ontogenikoa eta masajea.

4- Blokeoen eta tentsioen prebentzioa, kontuan izanik:

- Hasierako prebentzioa: familia-ko ekosistema, haurdunaldia, erditzea eta lehen urteak.

- Haur heldutasunaren prozesua.

- Lotura afektiboa.

- Gorputzaren kontrola.

- Gorputzaren eskema.

- Psikomotrizitatearen oinarriak.

- Autoerregulazioa.

- Sintoma eta patologia.

### Egutegia:

Urtarrilak 22  
Otsailak 19  
Martxoak 12  
Apirilak 16  
Maiatzak 21  
Ekainak 18

**Ordutegia:** 10:00-14:00

**Lekua:** Hazi-hezi zentroa  
Portuetxe 53 b, 210-211 bulegoak  
Donostia

**Prezioa:** 200 euro.

**Talde kopurua:** gutxienez 10 eta gehienez 20.

**Emaileria:** Jose Ramon Mauduit, psikologoa eta gorputz terapeuta, lehen urteetako eta taldeko prebentzioran aditua.

Izena emateko epea: abenduak 23  
Non: HIK HASIn  
Telefonoa: 943 371 408  
edo [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

# Muga guztien gainetik ...euskaraz!

## Argantzón ikastola Trobiñuko arabarren ikastola

Aurtengoarekin bigarren ikasturtea estreinatu dute Argantzón ikastolan, Trobiñuko konderrian. Bigarren urtez ireki dituzte ikastolako ateak, eta herriko nahiz inguruko herrietako haurrak pozarren sartu dira. Irakasleek ere hasierako grina bizi-bizirik dute oraindik, lan egiteko gogoz daude. Eta gurasoak, nola ez, esker onez beteak; euskaraz eskolatzeko aukera baitute euren txikiak.

Argantzón ikastola izen bereko herrian kokatuta dago. N-1 errepidearen 333 km-an dago Argantzón, Burgosko barrutian. Baina herriko kaleetan barneratu orduko kaleen izenak gaztelaniaz nahiz euskaraz irakur daitezke. Ez da Burgosko herri guztietan gertatzen, noski, baina bai hemen. Zeren Trobiñuko herriak, edo hobeto esanda herritarrek, ez dira burgostar sentitzen, arabar baizik. Askotan egin dira galdeketa Trobiñuko biztanleen artean, eta gehiengoak arabar izan nahi du. Burgos 94 km-ra dago Argantzóndik eta Gasteiz 18 km-ra. Horrenbestez, herritarrek Gasteizerako joera izan dute betidanik.

Eskolatzeko garaian ere gauza bera gertatu izan da. Herrian eskola bat egonagatik, gehienak Gasteizera joaten ziren euskaraz ikasi nahi zutelako. Horregatik, herriko eskola haurrik gabe gelditu zen, eta itxi egin behar izan zuten.

Halere, udalak herrian bertan ikastetxe bat egoteari garrantzia ematen zion, haur txikiak bertan geldi zitezten. Eta noski, garbi zeukaten ireki nahi zuten zentro berriak euskarazkoa izan behar zuela. Aurretik egindako galdekete ere herritarrek iritzi berekoak zirela egiaztatu zuten.

Horrela, udaletxeko agintariak Ikastolen Elkartearekin jarri ziren harremanetan, eta hortik sortu zen Argantzóngo ikastola.

Iazko ikasturtean ireki zituen ateak

14 ikaslerekin, eta aurten 21 dira; batzuk Argantzón bertakoak eta beste batzuk inguruko herrietakoak.

### Herritarrak imo daude euskararen alde

Argantzónen 400 biztanle daude errolatuta, baina agian kopuru bikoitza biziko da bertan. Izan ere, jendeak ez du izena herrian ematen, Gasteizen baizik, nahiago baitute arabarrak izatea.

Euskararen aldeko jarrera izan arren, herritarrek ez dakite euskararik. Euskaldun zaharrik ez dago eta kalean apenas entzuten den euskararik. Baina haurrak euskaraz eskolatzen hasi dira, eta zenbait heldu ere Trobiñuko AEKra joaten da. Aurten 50 lagunek eman dute izena, eta kopuru handia da, orain ar-







Herrian eskola bat egonagatik, gehienak Gasteizera joaten ziren euskaraz ikasi nahi zutelako, eta itxi egin behar izan zuten. Orain, ikastola berrira joan daitezke.

te ez baitzen hainbeste jende animatu.

Gutxisolo kultur elkarteak ere hainbat ekintza egiten ditu euskaraz: diapositiba emanaldiak, antzerkia...

Pixkanaka-pixkanaka herri osoa euskara sustatzeko urratsak ematen ari da. Eta dena beraien inizatibaz eta beraien kabuz egiten dute, Burgosek trabak jarri besterik egiten ez duen bitartean.

### Atez ateko lana

Ekaitz Lotina irakasleak kementsu eta ilusioz eutsi zion ikastola hau abian jartzeko egin zioten enbidoari. Gasteizko Armentia ikastolan ari zen lanean eta ustekabean iritsi zitzaion proposamena. *“Hasieran sinetsi ezinik egon nintzen. Ez nuen uste egundo horrelako zerbait muntatu beharko nuenik. Aurrena pixka bat izutu nintzen, baina gero ilusioa egin zidan. Eta Trebiñun izanda, aurrera egin nuen, du-darik gabe”.*

2003ko irailean ikastola martxan jartzeko, maiatzean hurbildu zen Lotina Argantzonerari. *“0-3 urteko haurren erroldak begiratzen hasi nintzen, inguruko herri guztietan kartelak jartzen, etxeetara deitzen, informazioa zabaltzen... Azken finean, ikastola irekiko zela informatzen. Bai, zerotik abiatu nintzen”.* Herriarrek oso ongi hartu zutelako dio. *“Oso pozik zeuden herrian ikastetxe bat edukitzeagatik eta haurrek lehenbiziko urteak herrian pasatzeko aukera ematen zuelako. Horrek bizia ematen dio herriari eta eskertzekoa da”.* Horrela, bada, batzuek oso argi zeukaten haurrak ikastolan matrikulatuko zituztela, eta beste batzuk animatu egin ziren.



### Gela barruko giroa

Ikastola udalaren egoitza batean dago, lehengo eskola zaharra egon zen leku berean. Txukundu, berritu eta egokitu egin zuten iaz, eta mantenuko ardura udalarena da. Iaz haur guztiak bertan egon baziren ere, aurten txiki gelditu zaie, eta zaharrenak (2-3 urtekoak) udaletxe azpiko ludotekan egoten dira. Haur gazteenak 13 hilabete dituzte eta zaharrenak 3 urte pasatxo. Bi hezitzaile egoten dira egun osoz beraiekin, eta beste bat egun erdiz. Lotinak dioenez, nahiz eta bi lekutan banatuta egon, sarritan elkartzen dira gauzak elkarrekin egiteko. *“Eskola txikien berezitasunetako bat da hori. Hasieran arazo bat dirudi adin desberdineko haurrak elkarrekin jartzea. Hirian adinka taldekatzen ohituta gaude eta eskema horrekin funtzionatzen dugu. Hemen, ordea, beste era batera antola-*





tu behar da. Haurrentzat nahastea aberasgarria eta ona dela uste dugu. Beraien artean asko ikasten dute, rol desberdinak betetzen dituzte, beste ardurak batzuk hartzen dituzte, eta hori beti da positiboa”.

Aurrera begirako panorama baikorra da. “Matrikula igo egingo dela uste dugu. Hirukiak jaio dira herrian eta ikastolara etortzeko asmoa dutela esan digute. Eta aldameneko beste herri batean ere beste hiruki batzuk jaio dira. Beraz, alde horretatik ez dugu arazorik izango. Printzipioz 6 urtera arteko eskaintza egiteko asmoa dugu. Eta gero geroakoak, ikusiko dugu”.

### Gurasoen jarrera funtsezkoa da

Beti esan izan da hasierako urteetan gurasoak gehiago inplikatzeko direla, eta zer esanik ez euskararen presentzia ahula den lekuetan. Normalean gurasoak kontzientziatuta egoten dira egoeraz eta badakite haurra nora bidaltzen duten. Halere, beti ez da hori gertatzen, Lotinak dioenez. “Batziek zentro normal batera zetozela uste zuten: haurra utzi eta kito. Pixkanaka, ordea, joan dira ohartzen ez dela zentro normal bat eta beraiek ere lan egin behar dutela”. Adibidez, herriko jaietan ikastolaren aldeko txosna bat jarri zuten eta gurasoak han jardun ziren elektrizitatea jartzen, apaintzen, txandak egiten...

## Ekaitz Lotina: “Matrikulazio alde- tik ez dugu arazorik igo egingo dela uste dugu. Dena dela, printzipioz 6 urtera arteko eskaintza egiteko asmoa du- gu. Gero gerokoak”

“Dirua lortzeaz gain, elkarrekin zer-  
bait egiteko balio izan du eta oso pozik  
gaude” diote irakasleek.

Horrez gain, guraso asko hasi dira euskara ikasten, eta elebitasunaren eta hezkuntzaren gaineko ikastaro bat ere egin zuten batzuek. Jarrera horrek bul-tzada handia ematen die irakasleei, ikastolari berari eta, nola ez, seme-ala-bei. Argantzongo herriko eskola euska-raz izango ez balitz, asko ez lirateke bertan geldituko. •



# PIRATAK

## ALTXORRAREN BILA

JOLAS  
KOOPERATIBOA



6 URTETIK  
AURRERA  
JOLAS  
DAITEKE

TALDEKA  
JOKATZEKO  
APROPOSA

PIRATEN ETA KORTSARIOEN  
ABENTURAK BIZITZEKO

LAGUNARTEAN ETA  
FAMILIAN JOLASTEKO



### ESKAERAK

Urtxintxa Eskola  
Mundaiz bidea 8, 2.e  
20012 Donoastia  
piratak@urtxintxa.org  
TEL: 943270033



